hiruka

158. zenbakia
2020ko maiatza

COVID-19

Gure bizitzak aldatu dituen pandemia

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon, Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Asier Barruetabeña, Eunate Muruaga, Ricardo Mutuberria, Izei Azkue, Iñaki Libano
Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo
Leioa
Erandio
Berangoko Udala
Plentziako Udala
Gorlizko Udala
Urdulizko Udala
Barrikako Udala
Lemoizko Udala

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

COVID-19 pandemiari begiratua

Aurkibidea

4 **Alerta guztiak piztu dituen epidemia baten historia**
14 **Albistea izan da**
18 **Hizkuntzaren zalantzategia**
19 **Zientzia etxeko atarian**
20 **Gatz-ozpinetan**
21 **Historiaren ganbara**
22 **Hirudika: Norvegia, koloreen eta argiaren irletan galduta**
30 **Koronabirusa munduko beste herrialdeetan**
34 **Musikhariak: Gure inguruko taldeak larrialdi-egoerari aurre eginez**
36 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

Zelan bizi dute pandemia atzerrian daudenek?

Kolore eta argiaren irletan galduta

22

34

Uribe Kostako musikariak: Zelan bizi dute konfinamendua?

36

Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak

Koronabirusa Uribe Kostan

Alarma guztiak piztu dituen pandemia baten historia

Otsail-martxoan egin zuen lehenengo agerraldia koronabirusak gurean. Ordutik, milaka infektatu eta ehunaka hildako utzi ditu COVID-19 izeneko gaitz ezezagunak gurean. Apurka bete-betean eroritako zulo beltzetik ateratzen hasiak gara, eta agintariek dioten «normaltasun berri» batetik gertuago gaude egunez egun. Gobernuak hartutako neurriez gainera, herriz herriko eta auzoz auzoko solidaritate keinu eta ekimenek zeresan handia izan dute epidemiari aurre egiteko. Hilabete luze hauetan jazotakoen laburpen xume bat topatuko duzue orriotan.

TESTUAK: **UNAI BREA · IKER RINCON MORENO** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Koronabirusaren eboluzioa EAEn

Martxoak 1
Osakidetzaren datuen arabera, martxoaren 1ean atzeman zuten lehenengo COVID-19 kasua. Uribe Kostan martxoaren 18rako 67 kasu zenbatuta zeuden (egun horretan eman zuten lehenengo aldiz herriz herriko zenbaketaren berri).

Martxoak 5
Ordurako 30 positibo atzeman zituen EAEko Osasun Sailak, eta lehenengo hildakoa izan zen. Herriz herriko hildakoen zenbatekoa inoiz ez du jakitera eman Osakidetzak.

Martxoak 9-12
Martxoaren 9an Gasteiz eta Bastidako hezkuntza-zentroak itxi zituzten; martxoaren 11n, aldiz, Araba osoko eta Bizkaian Balmasedako eskolak itxi zituzten. Hurrengo egunean, martxoaren 12an, neurria EAE osora zabaldu zuten.

Martxoak 13
Osasun Larrialdi Egoera dekretatu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak; ondorioz, konfinamendua agintzeko eskumena hartu zuen Eusko Jaurlaritzak, baita ekitaldiak bertan behera uzteko ere. Tantaka lokal eta ekitaldien itxierak egikaritzen hasi ziren.

Martxoak 14
Espainiako Gobernuak Larrialdi Egoera ezarri zuen, 15 egunerako; hala, pertsonen mugimendua eta ekonomia murriztuta gelditu zen. Maiatzaren 6ra bitartean lau aldiz luzatu du dekretua Espainiako Gobernuak, kontrako iritziak egon diren arren.

Martxoak 28
Espainiako Gobernuak beharrezkoak ez diren aktibitate denak bertan behera uztea agindu zuen, martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean.

Apirilak 15
Ikasturtea ekainean amaitzea eta errepikapenak «salbuezpenezkoak» izatea adostu zuten Espainiako Gobernuak eta autonomia-erkidegoek. Hurrengo egunean, EAEko Hezkuntza Saila horren kontra agertu zen.

Apirilak 26
Egun honetatik aurrera 14 urtetik beherako umeak kalera atera daitezke paseatzera, 09:00etatik 21:00etara, adin nagusiko bategaz eta etxetik kilometro bateko distantzian.

Apirilak 28
Espainiako Gobernuak konfinamendua arintzeko plana aurkeztu zuen, gizartea «normaltasun berrira» egokitzeko.

Maiatzak 2
Kirola egiteko eta paseatzera joateko ordutegia ezarri zuten, adinaren arabera. Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Urdulizen ez da ordutegirik egon, 5.000 biztanletik beherako udalerriak direlako.

Konfinamendua arintzeko plana

0 Fasea

Maiatzaren 4an ezarri zuten. Horretan, orain arteko neurriak hartzeaz gainera, merkatari eta establezimendu txikiek euren jardunari ekitea onartu da, aldez aurreko hitzorduagaz eta babes-neurriak bermatuta.

1 Fasea

Baliteke EAEn maiatzaren 11n sartzea fase honetan, COVID-19aren eboluzioaren arabera.

- 10 lagunera arteko bilkurak onartuko dira, distantzia mantenduta.
- Komertzio txikiak zabaldu.
- Terrazak zabaldu, %50eko edukieran.
- Hotelak zabaldu.
- Kultu-guneak zabaldu, %30eko edukieran.
- Kirol-liga profesionaletako entrenamenduak.
- Aire zabaleko merkatuak.
- 30 pertsonara arteko kultur ikuskizunak leku itxietan (1/3ko edukierara mugatuta) eta 200 pertsonara artekoak aire zabalean.
- Museoetara bisitak, 1/3ko edukierara mugatuta.
- Gaubeilak, parte-hartzaileak mugatuta.

2 Fasea

- Lokal komertzialak zabaldu, edukiera mugatuta.
- Jatetxeak zabaldu, mahai-zerbitzuagaz, edukiera mugatuta.
- Bigarren etxebizitzetara joateko aukera, betiere ohiko bizilekuaren probintzia berean dagoenean.
- Zinemak eta antzerkiak zabaldu, 1/3eko edukierara mugatuta.
- 50 pertsona jesarritako kultur ikuskizunak leku itxietan eta 400 pertsonara artekoak aire zabalean.
- Ehiza eta arrantza baimendu.
- Hezkuntza-zentroak zabaldu.
- Merkatalguneak zabaldu, leku komunak debekatuta.
- Ezkontzak baimenduta, parte-hartzaileak mugatuta.

3 Fasea

- Mugikortasuna arindu.
- Jatetxeetan edukierak arinduko dira, segurtasun-distantziak mantenduta.
- Komertzioen eta establezimenduen edukiera %50era artekoa onartu.
- Diskotekak eta gaueko tabernak, 1/3ra arteko edukieran.
- Hondartzak zabaldu, babes-neurriak mantenduta.

Solidaritatea eta konfinamenduari aurre egiteko hamaika bide

Auzokideen zaintza bermatzeko sare herritarrak abiatu dituzte Uribe Kosta osoan

Espainiako Gobernuak herritarren konfinamendua agindu bezain laster sortu ziren han-hemenka premia handiena dutenei erosketak egiten eta beste zeregin batzuetan laguntzeko herritar-sareak. Horietako batzuek erakunde publikoek helburu beragaz sortutako sistemetara bideratu dituzte izena emandako boluntarioak, ez ordea Erandio, Algorta eta Itzubaltzetakoak, besteak beste. «Sarea sortu genuenok herri-mugimenduko kideak gara eta komunitatea ezagutzen dugu», azaldu dute erandioztarrek, «uste genuen gu geu antolatzea eraginkorragoa izango dela erakundeek egitea baino». Algortako Zaintza Sareak, bere aldetik, azaldu du sare horrek «berria ez den krisi bati» erantzun gura izan diola: zaintzaren krisiari, alegia. «Egoerak jada aurretik genuen, hori handitu besterik ez da egin». ◄

Familien beharrak arintzeko neurriak hartu dituzte udalek

COVID-19aren pandemiak eragindako egoerak larrialdi ekonomikoan utzi ditu familia asko munduan, baita Uribe Kostan ere. Hori dela eta, udalek eta Mankomunitateak hainbat dirulaguntza prestatu dituzte. Berbarako, Leioako Udalak martxoan jakinarazi zuen hilean 100 euroko laguntza emango diela Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta 3 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei, koronabirusaren ondorioz eskoletako jantokiak itxi izanak sortutako arazoak arintzen laguntzeko, baldin eta haien elikadura osatzeko arazoak badituzte. Ildo horretan, Uribe Kostako Mankomunitateak azaldu du larrialdi ekonomikoko kasu horiek ezagutu gura dituela, «ahalik eta arinen erantzuna ematen saiatzeko». Anabel Landa Mankomunitateko presidenteak zehaztu duenez, «lehentasuna emango diogu premiazko beharrak asetzeari, hau da, elikadurarako eta etxebizitzarako gastuei». Udal gehienek esan dute zergak eta tasak ordaintzeko epea atzeratuko dutela. ◄

Larrialdi Egoera eta herritarron konfinamendua ezarri zirenetik askotariko keinuak egin dira han eta hemen pertsona bereziki zaurgarriei laguntzeko. Sare herritarrak, maskarak egiteko taldeak, kirola egiteko doako saioak, umeentzako euskarazko mintzapraktikak... Pertsonen zaintza erdigunean jarri dute auzokideek. Era berean, pandemiak larrialdi ekonomikoko egoeran utzitako familiei laguntzeko neurriak hartuko dituztela ohartarazi dute erakundeek.

Burua eta osasuna egoera onean mantentzeko gomendioak

Konfinamenduak askotariko arazoak sor ditzake jendearengan. Hori dela eta, Bizkaiko Psikologia Elkargoak Psikobizi ekimena jarri zuen martxan martxoaren amaieran, herritarrei harrera psikologikoa eskaintzeko, bereziki, premia handiagoa duten pertsonei, Grupo de Intervención en Emergencias y Catástrofes (GIPEC) taldearen bitartez. Etxealdiari aurre egiteko gomendioen inguruan jardun ginen Jon Gago Elkargoko gobernu-batzordekideagaz. Era berean, gure burua eta osasuna egoera onean mantentzeko, Itsaso Martin Gandia nutrizionistagaz berba egin genuen gomendio batzuk hartzeko eta erosketak egiterako orduan zein gauzari arreta jarri behar diogun jakiteko. ◄

Etxean konfinatuta egon arren, kirola egiteko askotariko aukerak egon dira egunotan

Koronabirusaren osasun-larrialdia dela eta, etxean geratu behar izan dugun honetan, garrantzitsua izan da errutinei jarraitzea eta gorputzari eragitea kirola eginez. Hori dela eta, ariketak egiteko hainbat bideo sortu ditu HIRUKAk, Algortako Global Equilibrium gimnasioagaz elkarlanean. Horrez gainera, Uribe Kostako adituei esker yoga, pilates, fitness eta abar egiteko proposamenak ere bildu ditugu gurean. ◄

Maskarak eta norbera babesteko ekipamendua

Koronabirusari aurre egiteko lehenengo lerroan egon diren erizain eta medikuei laguntza eskaintzeko askotariko ekimenak egon dira han eta hemen, baita Uribe Kostan ere. Besteak beste, *maker* komunitatea sortu dute EAEn, 3D inprimagailuak erabilita osasun-langileentzako materiala egiteko. Maskaren erabileraren aferak ere mugimendua eragin du gurean, Algortan sortutako Maskarilla Jostun Talde Solidarioa kasu. Himakapeko hainbat kidek ekin zioten zeregin horri joan den martxoaren 13an eta hogei bat jostun ibili dira lanean. ◄

Osasuna eta ekonomia, biak ala biak kolokan

© LAB SINDIKATUA

«Ekonomia vs osasuna dikotomia» salatu dute sindikatuek

Epidemiaren ondorioak larriak izango zirela konturatu eta Espainiako Gobernuak neurri zorrotzak ezarri orduko, pertsona batzuen osasuna arriskuan jartzen jarraitzea salatu zuten sindikatuek, konfinamendu orokorra agindu arren milaka lagunek lantokietara joaten segitu baitute, gutxi gorabehera Aste Santuagaz batera ezarri zen «errekuperatu beharreko ordaindutako baimena» delakoan izan ezik. Hartutako neurriak (aipatutako baimena, aldi baterako enplegu-espedienteak....), herritar gehienen alde baino, «enpresa handi batzuen irabazien mesedetan» hartu izana salatu zuen, HIRUKAk egindako elkarrizketan, Erika Bilbao LAB sindikatuko Eskumaldeako ordezkariak. «Dikotomia absurdo bat eraiki dute, osasuna versus ekonomia, bateraezinak balira bezala», adierazi zuen Bilbaok. ◂

Hirugarren sektorera bideratutako laguntzak nahikoak izango ote?

Tabernak, jatetxeak, denda txiki asko... Martxoaren erdialdetik itxita daude negozio ugari, konfinamenduaren pausoz pausoko amaierak zer ekarriko zain (eta pauso denak aurreranzkoak izango direlako itxaropenagaz). Sektoreak zartako ikaragarria hartu du, eta hainbat neurri iragarri eta ekimen sortu dira kaltea arintzeko. Estatuko eta EAEko erakundeek abiarazitakoez gain, Uribe Kostan, besteak beste, Getxoko Udalak itxi behar izan duten negozioentzako dirulaguntzak emango dituela adierazi du, eta sektorea berpizteko hainbat neurri hartuko dituela iragarri berri du Leioako Udalak ere. Zabalik egon diren dendek ere igarri dute krisia; hala, Plentzian horien katalogoa kaleratu zuten Udalak eta Merkatarien Elkarteak, eta tokiko merkataritzara jotzera animatu zituzten herritarrak. Getxon antzeko ekimena garatu du EH Bilduk: zabalik egon diren mapa osatu eta interneten ipini zuen erosketak horietan egiteko deia zabaltzeagaz batera. ◂

Aspaldi ez bezalako osasun-krisia ez ezik (derrigorrezko konfinamenduaren ondorioak ez aipatzearren), ekonomiaren sektore askorentzat sekulako kaltea eragin du koronabirusak. Izan ere, bataren eta bestearen, pertsonen eta ekonomiaren osasunen artean lehentasuna zeini ematen zaion bihurtu da eztabaida publikoaren epizentro nagusietakoa, nagusia ez bada. COVID-19a geldiarazteko ezarri diren neurriek zeresan ugari sortu dute, baita hartu ez direnek ere.



SARS-CoV-2, apurka-apurka ezagutu beharko dugun koronabirus berria

Normaltasun berria esan zaion ezohiko bizimoduak, ustez, COVID-19aren aurkako sendabide edota txertoa izan arte iraungo du. Gura genukeena baino gutxiago izan arren, gero eta gehiago dakigu gizartea hankaz gora ipini digun gaixotasun berriaz. Adituek etengabe azaldu dizkigute haren ezaugarriak, eta gure burua babesteko hartu beharreko ohiturak gure egunerokoaren ardatz bihurtu dira. Horretaz, eta datozen hilabeteetan gerta litekeenaz, luze eta zabal berba egin ziguten, esate baterako, Guillermo Quindós EHUko mikrobiologoak eta Cosme Naveda Bizkaiko Medikuen Elkargoko presidenteak. ◄

PCR testen inguruko eztabaida eta maskara-banaketa gorabeheratsua

Koronabirusa gure bizitzetan bete-betean sartu eta gutxira albistea zabaldu zen: hainbat euskal zientzialarik birusa detektatzeko PCR proba alternatiboa garatzea lortu zuten oso denbora laburrean. Harrezkeroztik polemika handia sortu da test horiek lehenbailehen erabiltzen ez hasteagatik. Zientzialari-taldearen koordinatzaileak, Urdulizen bizi den Ugo Mayorrek, esan zuen: «Guk datu guztiak bidali ditugu behar zen tokira, orain hartu behar den erabakia da test gehiago egin edo ez». Azkenik, test horiek erabiltzeko hitzarmena egin dute Eusko Jaurlaritzak eta EHUk. Bestetik, apirilaren 22an EUDELek, Euskadiko Udalen Elkarteak, iragarri zuen 300.000 maskara banatzen (24.300 Uribe Kostan) hasiko zela. Alabaina, banatutako maskarak kendu behar izan zituzten, akats batengatik. Maiatzaren 7an amaitu zuten 300.000 maskaren ordezkapena egiten. ◄

Kultura, kirola eta hezkuntza ere, konfinamenduan

Udan zer gertatuko zain, bertan behera geratu dira udaberriko lehenengo jaiak

Martxoaren 30ean jakin genuen Getxoko Andra Mariko jaiak ez zirela egingo ohiko datetan, hau da, maiatzaren erdialdean. Horren ordez, irailaren 10etik 13ra bitartean egiteko asmoa agertu zuen jai-batzordeak, «garai batean egiten ziren sasoian hain zuzen ere». Hori ere zalantzazkoa da orain, jakina. Berrikiago iragarri dute Lamiakoko jaiak, maiatzaren 29tik 31ra egitekoak zirenak, bertan behera geratu direla aurten, batzorde antolatzaileak eta Leioako Udalak hala adostuta. ◂

Etxealdiaren atarian kultur agenda hustu zen, gaur arte

Beste herrialde batzuetan (ez hainbestetan, artean) jazotakoa ikusita geunden eta etxean geratzeko aginduak ez gintuen ustekabean harrapatu, are gutxiago aurreko bizpahiru egunetan ikastetxeak itxi eta epe motzean programatutako kultur ekitaldi denak eten zirela jakinda. Momentu hartan luzerako ez izateko itxaropena zegoen, eta batzuek ahal beste eutsi zioten asmoei (Leioako Umore Azokak, esate baterako) baina amore eman behar izan zuten azkenean. ◂

Hezkuntza-mundua, irakaskuntza birtualera egokitzen

Adin eta maila denetan aurrez aurreko irakaskuntza eteteak errealitate ezezaguna ekarri dio sektoreari. EHUk apiril hasieran esan zuen ikasturte honetan ez zuela eskola presentzial gehiagorik emango; beste mailei dagokienez, sarri aldatuz joan dira asmoak. Bitartean, etxetik dihardute irakasle-ikasleek, eta zelan egokitzen dabiltzan azaldu zigun, sakon, Algortako San Nikolas ikastolako Eleder Butron irakasleak. ◂

Pedro Sánchez Espainiako presidenteak alarma-egoera hasiko zela esan baino lehen ere, bizitza publikoaren etenak irakatsi zigun epidemia honen ondorioak ez zirela izango bizirik gauden denok orain arte ezagututakoen modukoak. Etxean geratzeko agindua jaso orduko, bertan behera utzita zeuden ia ekitaldi publiko denak, eta hain zuzen hortxe, etxe barruan, egin behar izan dute habia kulturak eta kirolak hilabeteotan. Baita hezkuntzak ere. Sektore horientzat jipoia historikoa izaten ari da.

Kulturaren sektorea, kezkatuta baina bide berriak bilatzeko etengabeko ahaleginean

Oihko bideak itxita, ikusle eta entzuleengana ailegatzeko bestelako moduak bilatu behar izan dituzte artistek eta kulturgileek. Horrek bizibidea ziurtatuko dien jakin barik, baina. «Apur bat arduratuta nago antzerkiaren sektorearen etorkizunarekin», zioen Olatz Ganboa aktore algortarrak, etxetik eta internetez egindako *Etxekoak* telesaila estreinatu eta gutxira. Sarea erabili dute askok euren lanak erakusten jarraitzeko; baina José Manuel Rodríguez Espainiako Kultura ministroak esan zuenean ez zutela neurri berezirik hartuko sektoreari begira, egun biko grebara deitu zuten, apirilaren 10 eta 11n. «Gobernuak hartutako neurri ekonomikoek ez dute erroa jo; partxeak baino ez dira«, adierazi zigun Soinueder Ikuskizun Logistika enpresako kide Mikel Morenok. Deseskalatzeagaz batera ikuskizunak apurka bueltatzea aurreikusten da, ea norainoko hauspoa den hori kulturarentzat. ◂

Kalean ezin bada, etxean beharko du

Italiako irudiak ikusita geneuzkan, eta ideiaren bat hartuta. Kulturaren munduak irudimena lanean ipini du du konfimenduak ito ez dezan, eta profesionalek zein ez direnek jokaleku berrietara egokitu dira, dela internet, dela balkoia. Uribe Kostan martxan dugu, esate baterako, Lau Horma Artean ekimena, konfinamendu-garairako arte-erakusketa birtuala. Bestalde, bertsio berrian ibili dira, eta dabiltza, eremu naturalean kalea duten ekimen asko: aurtengo Kanpomartxo, adibidez, nork bere etxetik bideo bat grabatuz ospatu zuten Erandion; Berango Kantarik balkoietan eusten dio hileroko hitzorduari; berbalagunek aurrez aurre egin ohi dutena bestela egiteko bideak topatu dituzte; eta askok egoera baliatu dute barruko artista kanporatzeko... Gainera, etxe barruko ordu luzeak arindu beharrak bultzatuta, hamaika ekimen ipini dira martxan: bingoa internetez, bideo-lehiaketak... ◂

© ALAITZ LABEAGA AMEZAGA

Iritzia **Ohikonomia**

Nora doa gure ekonomia?

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN Ekonomialaria

Azken hamarkadetan, agerikoa da Uribe Kostak Bizkaiko ekonomian jokatzen duen papera: aski da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek esaten dutena birpasatzea. Zerbitzu sektorea, ostalaritza eta merkataritza txikia bultzatu dira; balio erantsi handiko zerbitzuak ez dira ohikoak, industriak gero eta pisu murritzagoa du, eta nekazaritza folklorikoa da. Orain, sustatutako sektorea da krisiaren kolpea jasango duena. Ezartzen ari diren erregulazioak oraindik ez dira argiak, eta administrazioek ziurtatutako dirulaguntzek ez dute negozio hauen epe ertaineko egoera asko aldatuko. Ikusteke dago eskualdearen ehun ekonomikoa erresilientea den.

Ziurrenik, enpresen arteko berregituraketa etorriko da, hornikuntza-kate globaletan hobeto txertatutakoen alde, eta eskala-abantailak, kostu txikiagoak eta lan-indarraren esplotazio erlatibo handiagoa dituztenen alde. Plentzia-Mungian, langileen %78k zerbitzu sektorean lan egiten dute eta enpresen tamaina, orokorrean, txikia da, 1-10 langilekoa. Egoera berri honi zein baldintzatan egingo diote aurre? CEPREDEk (Aurreikuspen Ekonomikoko Zentroa) esan du enplegu-galera gehien pairatuko duten sektore nagusiak merkataritza, bestelako zerbitzuak eta ostalaritza izango direla, eskualdearen oinarri ekonomikoa, alegia. Enpresa handiek talka honen irabazleak izateko txartel guztiak dituzte: saltoki handiak, frankiziak eta enpresa taldeak osatutako ostalaritza kateak, besteak beste.

Berri guztiak ez dira txarrak izango; 2008an esan ohi zen bezala, krisia aukera bat izan daiteke. Subiranotasun ekonomikoa berreskuratzeko, adibidez; baita eskualdeko pertsonen beharrizanak asetzera bideratutako ehun ekonomiko bat bultzatzeko ere: elkarri laguntzeko sareek posible dela erakutsi dute. Utz diezaiogun irudimenari hegan egiten, ekonomia gizakiak eraikitako zeozer baita, ez esku ikusezin ahalguztidun batek zehazten duena.

Iritzia **Zulotik**

Kultura, katebegi ahulena

ARMANDO LLAMOSAS RUBIO Kultur ondarearen teknikaria

COVID-19a dela eta, krisialdi itzel batean sartuko garela esatea ez da berria. Aste honetan teleberrietatik pasatu dira sektore guztiak, beren egoera zein larria den adierazteko. Kultura-sektorea ere bai. Sektore guztietan ez ezik, kulturan ere atzean zer dagoen jakin behar da, kultura mega-arloa da eta. Hor daude aktoreak, zinemagileak, gidoilariak, musikariak; soinu- eta argi-espezialistak; arduradunak, mantenukoak, programatzaileak, errepresentanteak; liburugintzan, egileak, editoreak, inprentak; museoen teknikariak, zaharberritzaileak; historialariak, ikerlariak, arkeologoak, paleontologoak; Hiruka eta antzeko hedabideak... eta askoz gehiago; jakina, horiekin lotutakoez gain.

Egungo krisia ikuskizunek eta publikoarekin lotutakoek larri pairatu dute. Bat-batean ezer gabe geratu dira, eta epe luzerako ere, ezer gabe. Nork uste du antzokiak berriro beteko direla? Kulturako beste arlo batek oraindik bizirauten du. Askok bere lanarekin jarraitzen dute, ikerketak eta txostenak egiten eta mundua aztertzen. Hala ere, badakite berehala krisiaren zama horien gainean eroriko dela. Datorren hilabeteetan, aurrekontuak murriztuko dira. Kulturaren diruarekin, gainontzeko sektoreei lagunduko diete. Errestaurazioak, ikerketak erakusketak... gelditu dira. Azken batean, itxaron daiteke.

Txarrena da hedabide guztiek normaltzat hartzen dutela kulturaren hondamendia. Naturala da, antza. Kultura, aldiz, ez da sektore komodina, ezta diru-erreserba ere; identitatea, ezagutza, ondarea eta gizarte-eraikuntzaz gain, pertsona asko daude atzean. Beti bezala, alferrik kexatuko gara. Zergatik kanpoko proiektuak itzelak dira eta hemengoak bigarren mailakoak? Berton kultura-ehuna haiek bezala zaintzen dugu edo? Zorionez, lehenengoz, Kultura Sailak kulturaren krisiaren kontrako laguntza bereziak iragarri ditu. Handiak edo txikiak, sektorea duintzeko ezinbestekoa. Ez dago turismoa soilik.

Puntua eta kontrapuntua **COVID-19 pandemia**

Koronabirusa

COVID-19ak
munduari ze min!
Handigorik igual
ezin zion egin.
Nahiz ez den aldatuko
gura bezain arin,
kalera irten ahal
dugunean, gordin,
berriro ezer ere ez
da izango berdin.

BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA
Getxo

Gaur mundua esnatu
da alde batetik:
maitatzen ditugunak
urrunduz kolpetik.
Bestetik begiratuz
Algorta aldetik
gure bizi xumean
birusa denetik
basurdeak patxadaz
dabiltza kaletik.

ARKAITZ GOMEZ AGIRRE
Getxo eta Bilbo

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Lehen/Orain **Portu Zaharra 1945**



ITURRIA: GETXOKO LIBURUTEGIAK ETA TXEMA GARCIA

Erretratua **Andoni Martinez Barañano** Tenorra

Egunero zita berezia dute Algortako San Nikolas plazako auzokideek tenore honegaz, zortzietan puntu-puntuan etxeko balkoitik kantatzeari ekiten baitio.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Andoni Martínez Barañano tenorrak azaldu digunez, konfinamendua abiatu zenean ekin zion bere etxeko balkoitik kantatzeari, inolako bozgorailurik gabe, operan egongo balitz bezala. Arrastiko zortzietan, puntu-puntuan, agertu ohi da jendaurrean, boleroak, zarzuelak edo ezagunak diren opera-kantak abesteko, eta hala segituko du konfinamenduak iraun bitartean, aitortu digu. «Agerleku oso polita da hau, publikoak, gainera, harrera oso ona egiten dit», diosku. Deitoratu duenez, garai zailak datoz kulturaren mundurako; bitartean, kantatzeko ohiturak ez galtzeko eta jendea animatzeko baliagarria egiten zaizkio horrelako ekimenak. Horrez gainera, azaldu du azken egunotan Cáritas GKE laguntzeko disko solidarioa grabatzeko ekimena jarri duela martxan.

> «Kantatzeko ohitura ez galtzeko aukera oso ona da egunero balkoira abestera ateratzea»

Zuzenbidea ikasi arren, abokatu gisa urte gutxi batzuk jardun ondoren kantatzea bere benetako bokazioa zela ondorioztatu zuen. «Abokatuen Elkargoko abesbatzan hasi nintzen, lehenengo tenore moduan». Ondoren, Arriagako Operako abesbatza batean jardun eta azkenean ABAOn kantatzera amaitu zuen. Horrezkero, kantu lirikoa ikasteari ekin zion bere kabuz, «mundu horrek izugarri liluratzen ninduelako». Hala, zuzenbidea alde batera utzi eta kantuaren munduan murgildu zen, 2000n. Orain, pandemiarik egongo ez balitz, seguruenik *Don Pasquale* kantatzen egongo litzateke Kazakhstaneko Astaná Operan. «Horretarako kontratua sinatuta neukan, baita Fuerteventuran abesteko ere. Baina dena geldituta dago orain». ◀

Getxo Urbanizazioa

Maria de Ibarra plaza gorpuztuta

Gune berriaren infografia.

Biribilgune berriak ibilgailuen zirkulazioa antolatzea eta erraztea ahalbidetuko du. Horrez gainera, Getxoko Udalak jakinarazi du *Las Uves* izenagaz ezaguna den azpiegitura kentzeko erabakia hartu dutela: «irudiok ez dute balio artistiko eta arkitektonikorik, Viviendas de Vizcaya enpresa pribatuaren inizialak baitira». Makaletako Etorbidearen birmoldaketa maiatzaren 8an amaitzea aurreikusten da. Lan horien ondorioz, María de Ibarra plaza (lehen Txikia plaza) «irisgarriagoa eta atseginagoa» izango da bai oinezkoentzat, baita inguruko denda eta ostalarientzat ere. Gainera, biribilgune berriak gune horretan ibilgailuen zirkulazioa antolatzea eta erraztea ahalbidetuko du. Pazaren izena, Maria de Ibarra, 2017an egin zen parte-hartze prozesu batean aukeratu zen, eta bertan parte hartu zuten *Las Uves* izeneko gune horretatik hurbilen dagoen inguruan erroldatutako auzokideek.

Getxo Denboraldi bikainari amaiera ezin hobea

Getxo Rugby taldea Ohorezko Mailara

Gizonezkoen lehenengo taldeak maila gorenera bueltatzea lortu du, Espainiako Errugbi Federazioak liga amaitutzat eman ondoren. Neskak taldeak ere denboraldi bikainari amaiera eman dio.

IKER RINCON MORENO ▶

Getxo Rugbyko lehenengo taldeak 7 puntuko aldea atera dio Gernikari. © GETXO RUGBY

COVID-19aren pandemia dela eta, Ohorezko Mailako eta Ohorezko B Mailako ligak amaitutzat eman ditu Espainiako Errugbi Federazioak. Ondorioz, Getxo Rugbyko gizonen lehenengo taldeak maila gorenera bueltatzea lortu du. «Denboraldi osoan zehar egindako lanagatik merezi dugun saria jaso dugu», adierazi du errugbitalde getxoztarrak.

Bizi dugun ezohiko egoera dela eta, 2019-20ko denboraldia bertan behera uztea erabaki du Espainiako Errugbi Federazioak. Horren ondorioz, Getxo Rugby Ohorezko Mailara bueltatuko da, bigarren mailan puntu gehien duen taldea izateagatik; zazpi puntuko aldea atera dio bigarrenari, Bizkaia Gernika taldeari. Kontrakoan, Hernani taldea kategoriaz jaitsiko da, maila goreneko ligan azkenengoa gelditu ondoren.

Maila gorenera igotzeko aukera izan zuten getxoztarrek iaz, baina azkenean ezinezkoa egin zitzaien Sevillako Ciencias taldearen kontra galdu ondoren.

«Denboraldi osoan zehar egindako lanagatik merezi dugun saria jaso dugu»

GETXO RUGBY TALDEA

NESKAK, EUSKAL LIGAKO TXAPELDUNAK. Neskak Getxo Rugbyko taldeak Euskal Ligako Txapelketa irabazi du, joan den otsailaren 29an La Única taldearen kontrako partida garaitu ondoren. Horrez gainera, Ohorezko B mailara igotzeko faserako txartela eskuratu zuten. Apirilaren 4 eta 5eko aste-akabuan jokatzekoa zen hori; hala ere, pandemiaren ondorioz igoera-fasea atzeratu egin du federazioak, "baliteke iraila-urrian jokatzea". ◀

Getxo Getxobonoak

Komertzioak aktibatzeko

Getxoko EH Bilduk osasun-krisiari eta bere ondorioei aurre egiteko proposamenak eta ekimenak aurkezten jarraitzen du. Herriko denda eta komertzio txikiei bultzada emateko asmoz, udan Getxobono berezi bat sortzea proposatu dio Getxoko Udalari. Proposamen horren arabera, udalerriko etxebizitza bakoitzak 10 euroko hiru bonu jasoko lituzke, bertoko komertzioetan erabiltzeko beste 10 euroko gastua eginda. Bonuak irailaren 30era arte egongo lirateke erabilgarri. Horrela, helburua da herriko komertzio eta denda txikietan gastua aktibatzea, nolabaiteko gasturik egitekotan. Proposamena Getxoko udal-gobernuari eta gainontzeko alderdi politikoei helarazi die koalizio abertzaleak.

Getxo Herritarrek pedala eskatzen segitzen dute

Edukiontziek aho-sistema izango dute

IKER RINCON MORENO ▶

Edukiontzi hori eta urdinetan aho-sistema instalatzeko lanak hasi dituzte. Hala, neurri batean, estalkiak eskuagaz ez ukitzeko herritarren eskaria ase ahal izango da, Udalaren iritziz. Lanon iraupena hilabete bikoa izango da, eta Algortako eta Areetako erdiguneetatik hasi dira, horiek abenduaren amaieran esleitu ondoren. Hala, gaur egun dauden estalkiak kenduko dira eta ahoa dutenak ipiniko dira. Horregatik uneren batean edukiontziren bat

Apirilaren amaieran hasi ziren egokitze-lanak, 112.119 euroren truke.

estalkirik gabe egon daitekeela ohartarazi du Udalak. 112.119 euroko kostua izango duen jarduketa hori 2019rako Partaidetza-Aurrekontuen barruan kokatzen da; aurrekontu horietan, herritarrek lehenetsitako aukera edukiontziak aldatzeari buruzkoa izan zen, horiek irisgarriago egiteko.

PEDALA JARTZEAREN AFERA. Herritar asko kexu da edukiontziak zabaltzeko pedala berreskuratu beharra dagoela; Udalak, bere aldetik, uste du aho-sistema horren bitartez estalkiak eskuagaz ez ukitzeko eskaria ase ahal izango dela. ◀

Sopela Zipiriñe ikastetxea

Lau proposamen leku-arazoak konpontzeko

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak apiril hasieratik du esku artean Sopelako Udalaren eskutitz bat, Zipiriñe eskolaren aspaldiko leku-arazo larriari aurre egiteko talde politikoek egindako proposamenakaz.

UNAI BREA ▶

Sopelako Hezkuntza Mahaiaren azken lan-saioan adostu zen eskutitz hori bidaltzea. Udaleko talde politikoek, Zipiriñe ikastetxeko zuzendaritzak eta Gurasoen Elkarteko zuzendaritzak osatzen dute Hezkuntza Mahaia. Apirilaren 7an batu ziren azkenekoz, eta talde politikoek eroandako proposamenak Jaurlaritzari jakinaraztea adostu zuten, Udalak berak adierazi duenez. Lau proposamenetatik, bi EAJrenak dira, eta bana egin dute EH Bilduk eta DB-TUk. «Arazoari kontsentsuzko irtenbidea ematea da helburua», esan zuen udal-gobernuak eskutitza bidali ostea.

Ikastetxea gaur egungo lekuan mantentzea eta instalazioak handitzea da EAJren proposamenen muina; zehazki, proposamen horren arabera orain gimnasioa dagoen lekuan eraikin bat egingo litzateke, solairu bikoa, eta patioari 1.600 metro koadro gehituko litzaizkioke, Goiene kaletik.

EH Bilduk Loroñon ikastetxe bat eraikitzeko proposamena egin du, eta herri-kontsulta bat egiteko aukera ere ipini du mahaiaren gainean, aukera guztiez behar bezala informatu ostean. DB-TUk, berriz, Iberreko institutua Loiola inguruan egingo litzatekeen lau solairuko eraikin berri batera eroateko proposatu du, eta Zipiriñeko ziklo batzuk orain Iberre dagoen lekura aldatzeko.

Ia hamar urte dirauen arazoa

Gurasoek diotenez, Bizkaian ikasle gehien duen ikastetxe publikoetako bat da Zipiriñe: 925, gaur egun. «Ikasturteko bost lerro ditu eskolak, baina lau lerro izateko diseinatu zen; gehienez 40 ikasgela izan behar zituen, eta 44 ditu».

HEZKUNTZA SAILAREN ZAIN. Josu Landaluze alkatearen esanetan, «egin beharreko lehenengo pausoa da Hezkuntza Sailak Zipiriñe sartzea 2019-2023 aldirako Inbertsio Planaren barruan, Iberre institutua handitzeko proiektua sartu den bezala».

Bidalitako gutunean, Hezkuntza Sailari eskatu diote proposamenen gaineko eztabaidan Sopelako Hezkuntza Mahaia osatzen dute taldeetako kide bana egon dadila.

«PAZIENTZIA AGORTU ZAIGU». Otsail amaieran eta martxo hasieran mobilizazioak egin zituzten Zipiriñeko gurasoek, orain dela ia hamarkada bat hasitako leku-arazoengatik protesta egiteko. Salatu zutenez, irakaskuntzaren eta bestelako zerbitzuen kalitateak behera egin du urtez urte masifikazioari aurre ez egiteagatik, eta erakundeen inplikazio-faltaz kexatu ziren.

Gaineratu zuten este muga bat gainditu dutela aurten: jantokiak ez du leku nahikorik. «Baliteke familia batzuk zerbitzu horretatik kanpo geratzea datorren ikasturtean», adierazi zuten. ◀

LEIOA Aurrekontuak

Herritarren 800 proposamen

Proposamenak jasotzeko postontzia

Otsailaren 10etik martxoaren 1era leioaztarrek aukera izan zuten datorren urteko udal-aurrekontuetarako proposamenak eta ekarpenak egiteko. Denera 800 inguru jaso ziren, 380 herritarrek egindakoak, udal- teknikariek aztertzeko. Udalak gogorarazi zuenez, prozesuaren lehenengo fasean norberak gura zuen proposamena egin zezakeen, hiru astez horretarako bideak erabilita. Hortik aurrera, teknikariei dagokie batutako proposamenak aztertzea eta bideragarriak ote diren esatea. Galbahe-lan horren emaitza udal-webgunean argitaratzekoa da. «Auzotarrek Leioako behar nagusiak ezartzea» da prozesuaren helburuetako bat, Udalaren esanetan. Zehaztu zutenez, aurtengo aurrekontuetako 900.000 euro bideratuko dira prozesu horretara. Parte hartzeko aukera izan dute 16 urtetik gorakoek.

Sopela Urdulizko ospitalerako sarbidea

Osteikoko errepiderako 400.000 euro

UNAI BREA ▶

Sopelako Udaleko gobernu-taldeak martxoko osoko bilkura telematikoan onartutako neurrietako baten berri eman zuen apirilaren 10ean, udal-webgunearen bitartez: 410.000 euroko kreditu-aldaketa bat, Olabide-Osteiko errepidea egiteko. Lan horrek Urdulizko Ospitalerako sarbide zuzena eskaini eta erdiguneari trafikoa kenduko diola esan zuen udal-gobernuak. EH Bildu, berriz, ospitalerako sarbide bakarra hori izatearen aurka agertu zen, eta eztabaida sakona eskatu zuen Sopelako saihesbideez eta trafikoaz oro har.

> Lanek ospitalera joateko sarbide zuzena eskainiko dutela esan zuen udal-gobernuak.

Onartutakoaren ondoriozko prozedurari noiz ekin dakiokeen koronabirusak esango du. Josu Landaluze alkatearen esanetan, alarma-egoera gainditu ostean aterako da lizitazioa Osteiko-Olabide errepidearen lanetarako. «Baldintza-agiriak idatzita daude jada», azaldu zuen.

Osoko bilkurako bozketan berdinketa egon zen (EAJ eta PSE-EE alde, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos aurka), eta honenbestez alkatearen kalitatezko botoagatik onartu zen kreditu-aldaketa. ◀

LEIOA Avanzada

Obren lehenengo fasea amaitu da

Bizkaiko Foru Aldundia Leioako tunelaren eta Artatzako biribilgunearen artean egiten ari den jarduketaren bidez, bide-segurtasuna hobetu gura da, eta Getxorako noranzkoko zirkulazioa arindu, gune horretako auto-ilarak gutxitzeko. Martxoaren 27an amaitu zuten Avanzadako galtzada (BI-637) berrantolatzeko egiten ari diren herri-lanen lehenengo fasea; alegia, tunelaren eta Artatzako biribilgunearen arteko zatia. Foru Aldundiak 1.126.368 euro inbertitu ditu obra horretan, eta, haren bidez, bide-segurtasuna hobetu gura du, baita Getxorako noranzkoko zirkulazioa arindu ere, Avanzadako erdiko enborraren ahalmena handituz eta zirkulazioa oztopatzen duten faktoreak kenduz.

SOPELA Hirigintza

Oposizioa, Bareñon eraikin komertzial bat egitearen aurka

Joan den martxoaren 26ko batzarrean, Bareñoko 3.000 metro koadro inguruko partzela batean eraikin komertzial bat egitea onartu zuen Sopelako osoko bilkurak. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek adierazi zuten merkataritza-gune batek kalte egingo liekeela herriko dendari txikiei.

UNAI BREA ▶

Zehazki, eremuaren eraikigarritasunari buruzko xehetasun-azterketa zen onartu zena; horren arabera, solairu bi eta 94 ibilgailurentzako lurpeko aparkalekua dituen eraikin bat altxa liteke aipatutako eremuan, Barrikarako bidean dagoen eta oinezkoentzako pasabidea duen errotonda handiaren inguruan. Partzela osoak 2.869 metro koadro ditu. Horietatik, gehienez ere 800 eraiki litezkeela adierazi zuen Josu Landaluze alkateak ohiko bilkurako eztabaidan, hau da, solairu bakoitzeko 400 metro koadro asko jota (aparkalekua ez da kontuan hartzen).

Aitzitik, EH Bilduko Unai del Burgok esan zuen bozkatu behar zuen dokumentuaren arabera, etorkizunean 3.050 metro koadro eraiki ahal izango direla eremu horretan, solairu biak batuta betiere. Landaluze alkateak erantzun zuen ziurtatu egingo zuela, baina udaleko teknikariek argi eta garbi adierazi diotela hor egiten den eraikinak 500 eta 800 metro koadro bitarteko tamaina izan beharko duela.

«Hipika edo hortz-klinika»

Eztabaidan, Bareñon merkataritza-gune bat egin zitekeela aipatu zuten EAJ eta PSE-EEko ordezkariek, baina baita beste mota askotako eraikinak ere («hipika bat, edo hortz-klinika bat, esaterako»), HAPOan jasota dagoen helburu komertziala baldin badute.

MERKATARI TXIKIEN KALTERAKO, OPOSIZIOAREN USTEZ. Bareñon merkataritza-gune bat egingo balitz ez litzateke handia izango, ertaina baino. Sopelak behar duena baino handiagoa edozein kasutan Unai del Burgoren ustez. EH Bilduren bozeramailearen berbetan, «ezagutzen dugu Berangoko merkataritza-guneek merkataritzan eta trafikoaren bolumenean izan duten eragin negatiboa». Bareñon merkataritza-gune bat eraikitzeak herriko dendari txikiei kalte egingo liekeela gaineratu zuen, eta argudio berdintsuak eman zituen Elkarrekin Podemoseko Eder Garciak: «Ezetz bozkatuko diogu Sopelako merkataritza-zentroko megaproiektuari. Sopelako negozio txikiaren alde apustu egiten dugu». Gobernu-taldeko alderdiek, EAJk eta PSE-EEk, azaldu zuten bozkatu beharrekoa Bareñon eraiki daitekeenaren ezaugarriak zirela, baina ez zer erabilpen emango zaion, «oraindino Udalari ez baitzaio aurkeztu inongo proiekturik; zurrumurruak baino ez daude». ◀

URIBE KOSTA Klikatu grafikoan eguneratuta ikusi ahal izateko

DATUAK: **OPEN DATA EUSKADI. 2020/05/06KO 20:00AK ARTE**

COVID-19 pandemiaren eboluzioa



Konfinamendua hasi bezain laster, herriz herriko eta egunez eguneko COVID-19ari lotutako datu denak batzen ibili gara HIRUKAn, goiko irudian klikatuz gero ikusiko duzuen infografiaren barruan. Atzemango duzuenez, gorabehera handiko egunak bizi izan ditugu; batzuk besteak baino hobeagoak, kutsatu zein hildakoen harira. Goiko grafikoan ikusiko duzuenez, Getxo, Leioa eta Erandio dira koronabirusak gehien kolpatu dituen udalerriak; hala ere, herri txikietan gaitza beranduago heldu den arren, gaur egun eskualde osora zabaldu da COVID-19a.

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Hil edo/ala biziko kontua dugu esku artean

***Edo* eta *ala*. Bi juntagailu horiek erabiltzeko orduan zalantzak izan ohi ditugu: noiz erabili bata eta noiz bestea? Biak modu berean erabil daitezke? Alegia, berdin da bata zein bestea erabili? Galdera horiei argi pixka bat ematera nator artikulu honetan.**

Juntagailu hautakariak dira biak, baina euren arteko ezberdintasuna azaltzeko, bi puntu hartu beharko genituzke kontuan: zein motatako esaldietan agertzen diren eta zein motatako aukera adierazten duten. Horiek horrela, esan daiteke *edo* erabiltzea beti dela zilegi; erabilera zabalagoa du eta markatugabea da. *Ala*, berriz, markatuagoa da.

Hortaz, *edo* eta *ala* bereizi nahi badira, *ala*-ren erabilera eremua finkatzea izaten da errazena. Honela dator definituta Euskaltzaindiaren Hiztegian: «Galderetan eta zehar-galderetan, elkar baztertzen duten aukerak lotzen direnean, *edo*-ren ordez erabil daitekeen hitza». Beraz, galderetan erabili ohi da (zuzeneko nahiz zeharkakoetan), galdegai diren osagaiak juntatzeko: *Zer nahi duzu, ura ala ardoa? Aitarekin ala amarekin joango zaren jakin nahi dut*. Esaldiak ere junta ditzake, betiere bien artean galdera bakarra osatzen badute: *Etxean gelditu zara ala gurekin etorriko zara sagardotegira?*

«ALA», AUKERA GEHIAGO MARKATZEKO. Batzuetan, gainera, aukerak areago markatzeko erabili ohi da *ala*, hautakari gisa, *edo* ere zilegi den tokian. Horiek, funtsean, zehar-galdera modukoak direla esan daiteke, horregatik da egokia *ala* erabiltzea: *Zeuk ikusi izena hatxerekin jarri edo hatxerik gabe*. Berdin-berdin: *Zeuk ikusi izena hatxerekin jarri ala hatxerik gabe*. Beste bat: *Izan edo ez izan: horixe da kontua. Izan ala ez izan: horixe da kontua*.

Galderetatik kanpo *ala*-k badu beste erabilera bat, Iparraldean bereziki ematen dena adierazpen-perpausetan. *Nahiz* eta *zein* juntagailuen pare erabiltzen da orobatasuna adierazteko, hau da, askotan antonimoak diren osagaiak juntatzen ditu, baina ez du aukera esklusiboa adierazten; aipatzen direnak parekoak zaizkigula adierazten du, berdintsu zaigula bata zein bestea, alegia. Hona hemen adibide bat: *Berdin zait nire lagunak aberats ala pobre izan*. Hala ere, ez ahaztu erabilera horietan guztietan *edo* beti dela zilegi.

> Badaude zenbait esaldi egiazki aukera adierazten ez dutenak, nahiz eta berez elkarren kontrakoak izan. Esate baterako, zein da egokia: *hil edo biziko auzia* ala *hil ala abizko auzia*? Euskaltzaindiak dio zuzenak direla bi esapideak, hala ere aldaera estandar gisa *hil edo bizi*-ren alde ageri da.

NOIZ EZ DEN «ALA» ERABILI BEHAR. *Ala* noiz erabil daitekeen aipatu dugu orain arte. Goazen orain aipatzera noiz ez den komeni erabiltzea. *Ala* juntagailua ez da erabiltzen galdera partikulak juntatzeko. Adibidez: *Zerk edo nork ikaratu zaitu?* Eta ez: **Zerk ala nork ikaratu zaitu?* Bestalde, bi esaldietan *edo* agertzen den egitura motetan ez da komeni *ala* erabiltzea. Ikus dezagun adibide bidez hobeto ulertzeko: *Edo denok elkartzen gara, edo hemen ez dago zer eginik*. Horrelakoak ez dira *ala*-rekin eman behar: **Ala denok elkartzen gara, ala hemen ez dago zer eginik*.

Azkenik, badaude zenbait esaldi egiazki aukera adierazten ez dutenak, nahiz eta berez elkarren kontrakoak izan. Esate baterako, zein da egokia: *hil edo biziko auzia* ala *hil ala biziko auzia?* Euskaltzaindiak dio zuzenak direla bi esapideak, baita erabilgarriak ere. Hala ere, aldaera estandar gisa, *hil edo bizi*-ren alde ageri da, eta horixe gomendatzen da hainbat estilo liburutan ere. Horregatik ikusi dut egoki atal honetan sartzea.

Gisa horretakoak dira beste adibide hauek ere: *Goiz edo berandu, ikasiko du. Lehentxeago edo geroxeago, etorriko da. Salbazioko edo kondenazioko epaia ematen dute irakasleek ere kurtso-amaieran. Testu motaren arabera, modu batera edo bestera agertzen dira ezaugarriak*.

HAUTAKARIA BEHARREZKOA EZ BADA, EZ ERABILI. Batzuetan, baina, juntagailu bi horiek ez dira egoki erabiltzen, emendiozko juntagailu baten ordez ematen baitira. Ez dira zuzenak honelakoak, *ala* erabili zein *edo* erabili: **Ez da gauza bera «hogei ber bi» ala «hogei bider bi»*. Kasu horretan okerra da hautakaria; bi terminoren gainean ari da, ez aukera adierazten. Beraz, hau da forma egokia: *Ez dira gauza bera «hogei ber bi» eta «hogei bider bi»*. Beste adibide bat: **Han ziren Agirre, Arangoa edo Arrieta bezalako idazle ezagunak*. Hona hemen modu egokia: *Han ziren zenbait idazle ezagun, hala nola Agirre, Arangoa eta Arrieta*. ◂

Zientzia etxeko atarian Riki Mutuberria Zabala

Artisautzazko ogiaren oinarrizko biologia

Askok aurkitu dugu konfinamendurako ihesbidea etxean dugu laborategian: sukaldean. Ore amaz egindako ogia izan da gehien partekatu den errezetetako bat. Baina, zer da ore ama? Zein mikrobio bizi dira bertan? Nondik datoz? Eta nola eragiten diete ogiaren ezaugarriei?

Beste biohacker asko bezala, hartziduraren zalea naiz kozinatzeko orduan. Horregatik, suhiltzaile baino lehen sukaldaria izan zen Imanol nire lagun maiteak, konfinamendu betean, ore amatik abiatuta ogia egiteko errezeta bidali zigunean, bitan pentsatu gabe ekin nion irina eta ura nahasteari.

Ore ama, edo legamia ama, ogiaren masa hartzitzeko erabiltzen diren onddo eta bakterioen kultibo bat da. Edozein ore amatan bizi diren mikrobioak elkarren nahiko antzekoak badira ere, ore bakoitzaren mikrobio-konposaketa bakarra da. Legamiak zelulabakarreko onddoak dira, eta hartzidura alkoholikoa egiten dute.

Prozesu horretan irinean dauden azukreak kontsumitu eta alkohola eta CO_2 ekoizten dira. Alkohola labeko beroak lurruntzen du, eta CO_2-aren burbuilak glutenean atxikita gelditzen dira; horren ondorioz orea harrotu egiten da, eta ogia bigun geratzen da. Bakterioak legamiak baino ugariagoak izan ohi dira, laktobaziloak izaten dira eta hartzidura laktikoa eragiten dute. Azukreak kontsumitu eta azido laktikoa ekoizten dute, eta horrek ematen dio ogiari zapore pittin bat azidoa. Hartzidura bikoitz horren emaitza ogi gozoagoa, digeritzeko errazagoa eta nutritiboagoa da.

MUNDUKO OKINEI GALDEZKA. Ore amaren biologia ikertzeko asmoz, Ipar Carolinako Unibertsitate Estataleko Zientzia Publiko Laborategiak zientzia irekiko proiektu bat sortu du, zeinean denok parte har dezakegun. Proiektu horren bitartez, hamazazpi herrialdetako ore amaren 571 lagin biltzea lortu dute. Inkesta global bat egin dute eta horren bitartez milaka okin zaleturen eta profesionalen datuak eta historiak jaso dituzte, eta ikastetxeei aukera ematen diete nazioarteko zientzia-egitasmo batean parte hartzeko.

Inkesta globaletik abiatuta, ore amaren laginetan 200 legamia-espezie inguru topatu dituzte, eta laktobaziloen eta antzeko bakterioen beste horrenbeste. Laginetako legamia ugarienak *Saccharomices cerevisiae* dira, hau da, besteak beste garagardoa eta ardoa hartzitzeko erabiltzen den mota berekoak; hala ere beste legamia ezagun batzuk ere agertu dira, *Candida* esaterako.

Ore ama bakoitza, unibertso bat

Edozein ore amatan bizi diren mikrobioak elkarren nahiko antzekoak badira ere, ore bakoitzaren mikrobio-konposaketa bakarra da. Legamiak eta bakterioak egoten dira orean; lehenbizikoek hartzidura alkoholikoa eragiten dute, bigarrenek hartzidura laktikoa. Argazkian, nik neuk egindako ogia.

MIKROBIO JAKIN BATZUK GAILENTZEN DIRA. Mota guztietako milaka onddok eta bakteriok inguratzen gaituztela kontuan izanda, nola liteke gutxi batzuk baino ez egotea ore aman? Antzeko zerbait gertatzen da hartziduraz ekoiztutako beste elikagai batzuetan; jogurtetan eta konbutxean, konparazio baterako. Nagusitzen diren mikrobioek kondizio ezin hobeak sortzen dituzte eurak hazteko, baina oso desegokiak beste mikrobio batzuk garatzeko.

Dirudienez, kondizio horiek okinen eskuetara transferitzen dira; analisien arabera, haien ore aman dauden legamia eta bakterio berdinek kolonizatzen dituzte eskuok. Gure eskuetan ere laktobaziloak eta legamiak egoten dira, baina ez beti, eta ez hain kantitate handian.

DIBERTSITATE BILA, BESTELAKO OSAGAIEN BIDEZ. Ezin esan liteke mikrobio horien jatorria ura denik, ezin izan baitira aurkitu ur-laginetan. Ohikoa da, hori bai, irinetan eta haien emaitza diren ore aman bakterio eta legamia berdinak aurkitzea. Normalean, irin integralek legamia gehiago izaten dute, eta findutako irinek bakterio gehiago. Horrenbestez, oso litekeena da irin-mota bat baino gehiago nahasiz gero eta dibertsitate handiagoa lortzea.

Bestelako produktu batzuk gehituz ere egin daitezke saiakerak. Nik neuk, esate baterako, artisautzazko belgikar garagardo baten tanta batzuk eta jogurtaren gazur apur bat botatzea erabaki nuen. Harro nago atera zaidan ama oreaz, eta gorde egingo dut aurrerantzean ere erabiltzeko, oso ogi gozoa ematen baitu. ◂

Gatzo-ozpinetan Izei Azkue

Nola molda gaitezke sukaldariok COVID-19ra?

Koronabirusak kalte handiak eragin ditu sektore askotan, baita sukaldaritzaren munduan ere. Larrialdi Egoera hasi orduko, beharrean nengoen jatetxetik bota ninduten, dena lasaitu orduko bueltatu ahal izango nintzela aginduta. Hala ere, nork daki hori noiz izango den? Badazpada, nire proiektu berria aurkeztuko dizuet.

Dakizuenez, sukaldaria naiz eta duela gutxira arte jatetxe batean egiten nuen lan; bai, iraganean ari naiz, COVID-19ak sortutako Alarma Egoera hasi baino bi egun lehenago jatetxekoek langabezian utzi ninduten-lako. Aurreikus zitekeen hori eta hau dena pasa ostean lanera bueltatzeko aukera izango nuela esan zidaten arren, nork daki hori noiz izango den. Hori dela eta, orain dela urte batzuk buruan gordeta nuen enpresa sortzeari ekin diot egunotan. Bada, nire ekintzailetzaren inguruan jardungo naiz orain, horren nondik norakoak azaltzeko.

Nakatambutxef izena duen proiektuari ekin diot eta maiatza amaitu baino lehen martxan egotea espero dut. Bizi garen egoera dela eta, momentu ona zela pentsatu eta martxan ipini nuen Behargintzako kurtso baten laguntzarekin. Banekien zaila izango zela, baina lana galdu eta gero ez neukan gauza gehiago galtzekorik. Nakatambutxef izena Nacatambutche izeneko Nikaraguako plater batetik dator, nahiko izen indartsua iruditu zitzaidan eta modu batean euskarara moldatu nuen, «chef» hitza amaieran gehituta. Sortutako enpresa honen helburua da etxez etxe kozinatzera joatea, hiru zerbitzu-mota eskainita. Alde batetik, chef pribatua izango da zerbitzu nagusia; hau da, bezeroaren etxeetara joan eta bertan janaria prestatu, mahaia ipini, batu eta garbitu. Bestalde, etxera eramateko janari prestatua ere eskainiko dut. Era berean, ikastaroak eta kurtsoak eskainiko ditut, bezeroaren etxean, sukaldaritzaren inguruko sekretuetan trebatzeko. Era berean, ideia da astero ikastaroren bat edo beste antolatzea.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da zehaztea zerbitzu hauek ez direla *fast food* jatetxe baten antzekoak izango. Zerbitzuak ezin izango dira momentuan bertarako eskatu; hala, denbora-tarte batekin eskatu behar izango da. Izan ere, hainbat platermota ezin izango ditut beti prest eduki; are gutxiago sukaldari bakarra izanda. Chef pribatuaren zerbitzua eskatzekotan, aldiz, ez litzateke mugarik egongo; denetarik eska dezakezue.

cook at home
NAKATAMBUTXEF

Menu-proposamena

- **Ahatezko *micuita* tipulazko coulisarekin.**
- **Indaben hummusa barazkien *crudite* eta banana ar txigortuarekin.**
- **Behi-hegala tenperatura baxuan eta Oportozko saltsarekin.**
- **Kakizko moussea eta txokolatea *crumble*arekin.**

Hiru menu-mota proposatuko ditut uneoro; hala ere, moldagarriak izango dira. Egokiena da nirekin kontaktuan ipintzea eta bezeroaren eta nire artean menua zehaztea. Hala, ideia da edozein menu-mota egin ahal izatea, betiere prezioa eta gustuetara moldatuta. Aipatzekoa da ere zenbat eta talde handiagoa izan, orduan eta zerbitzu merkeagoa izango dela pertsona bakoitzarentzat.

Prestatutako janaria etxeetara eramateko zerbitzua Getxon, Berangon eta Sopelan egongo da aukeran soilik; hemen ere, edozein gauza eska daiteke, baldintza batzuekin, noski. Ez dut bidean kalitatea galtzen duten platerik egingo, hala nola patata frijituak eta kroketak. Kalitatezko janaria eskaini nahi dut, etxera behar den bezala helduko dela bermatuta. Zerbitzu hau ere denbora tarte batekin eskatu beharko da; egia da plater batzuk beti eskuragarri izango ditudala, baina agian beste zerbitzu bat eman behar izango dut edo erosketak egin behar izango ditut. Kontuan hartu behar da pertsona bakarreko enpresa izango naizela; hala, nire mugak izango ditut, noski.

Ikastaroei dagokienez, pertsonalizatuak izan daitezke. Nik proposatutako kurtsoak egongo dira, baina horrek ez du esan nahi bezeroak zerbait berezia ikasi nahi duenean hori proposatzerik ez duenik. Etxez etxe joan ahal izango naiz eskola horiek ematera; era berean, kurtsoak leku jakin batean ere eman ahal izango ditut.

Zorte handikoa naiz askotariko jatetxeetan lan egin dudalako. Horri esker, hainbat janari-mota eta teknika ikasi ditut, baita bertoko eta nazioarteko platerak prestatzen ere. Horregatik, interesgarria iruditzen zait janari ezberdinak nahastea menuetan, askotasun horretaz gozatu ahal izateko. Era berean, zerbitzu pertsonalizatua izanda, menu beganoak zein glutenik gabekoak egiteko aukera ere egongo da, norberaren poltsikora egokituta. Animatzen zaituztet Nakatambutxef izena sare sozialetan bilatzera, bertan eskaini ahal izango diren plater eta menu-mota guztiak ikusteko. ◂

Historiaren ganbara Iñaki Libano

Erromatarren garaiko aztarnak Algortan

Algorta-Getxoko hilerriaren ipar-mendebaldeko paretatik 30 metrora dagoen ingurua da Kortiñe. 1997ko uztailean, leku horretako urbanizazio-prozesuan orban ilunak atzeman genituen. Hala, hondeamakinek iraulitako lurretan prospekzioak egin eta *terra sigillata* zeramikak aurkitu genituen.

Erromatarren garaiko zeramikarik ohikoenak dira *terra sigillata* gisakoak. Uribe Kosta inguruan oso arraroa da mota horretako aztarnekin topo egitea; hori dela eta, aztarnategia aztertzeko eta elementu horiek berreskuratzeko eskaera egin genion Bizkaiko Foru Aldundiari. Aurkitutako pieza denak Bilboko Arkeologi Museoan utzi genituen. Elementu horien denen kronologia erromatarren garaikoa zela argi zegoen; ondorioz, urgentziazko indusketa egiteko eskaera egin genuen. Obrak geldiarazi zituzten aztarnategia zegoen eremuan, Mikel Unzuetak, Iñaki García Caminok eta hirurok azterketa egin ahal izateko.

Indusketa-lanak uztailaren amaieran abiatu genituen, hondeamakinek iragazi ez zituzten eremuetan zundaketak eginez. Emaitzak positiboak izan ziren; hala ere, baieztatu ahal izan genuen aztarnategiaren zatirik handiena desagertu egin zela, obretan egindako lanen ondorioz.

Zundaketetan aurkitutako zeramika-zatiei esker hasierako hipotesiak baieztatu ahal izan genituen. Askotariko *terra sigillata*k aurkitu genituen: apaingarririk gabekoak, orrazi bidezko apaingarriak eta alderantzizko ertzak zituztenak. Era berean, burdinaren galdaketaren zepak, objektu metalikoak eta moluskuen aztarna ugari topatu genituen baita ere. Hala, ondorioztatu ahal izan genuen artisau burdinola bat egon zela bertan, sukalde txiki batekin.

Kortiñe leku garai batean dago, aire zabalean, Algortako Galea erdian. Kokapen paregabea zen bertan burdinola txiki bat ezartzeko. Baliteke aztarnategi horren ondoan jende autoktonoaren herri txiki bat existitu izana, merkataritzarekin eta erromatarrekin lotura zuena. Oraingoz ezinezkoa egin zaigu herri horren aztarnategia aurkitzea, eta seguruena da inguruan aurrera eramandako urbanizazio-prozesu modernoek suntsitu izana.

Gaur egunera arte oso arraroa izan da aztarna erromatarrak aurkitzea Uribe Kostan eta inguruetan; hala ere, ziur nago etorkizunean gehiagorekin topo egingo dugula.

Burdinola Kortiñen

Urgentziazko indusketa egin zuten urbanizazio-prozesu batean orban ilunak atzeman ostean. *Terra sigillata* zeramika-zatiak eta burdin zepak aurkitu zituzten bertan; eta hala, Kortiñekoa erromatarren garaiko burdinola txiki baten aztarnategia dela ondorioztatu dute.

Sopelan eta Barrikan *terra sigillata* tipologiazko zeramika gehiago aurkitu da, dispertsatuta bada ere. Bilbon, Sopelan, Plentzian eta Portugaleten erromatarren garaiko txanponak agertu dira, Ibaizabal eta Plentziako itsasadarrak dragatzeko lanetan edo itsasbeheretan. Hala ere, Kortiñeko aztarnategia erromatarren eragina izan duen aire zabaleko asentamendu bakarra da Uribe Kostan.

Kontuan hartu beharra dago Kantauri isurialdeko ekialdean zegoen porturik garrantzitsuena ikus zitekeela Kortiñetik, gaur egungo Castro Urdialesen alegia: *Portus Amanus*. Autrigoien portua zen hori, eta erromatarrekin komertzio handia zegoen bertan. Lehengai ugari trukatzen ziren portu horretan, hala nola burdina; I. eta IV. mendeetan produktu oso gutiziatua zen hori inguruotan.

Flaviobriga izena zuen kolonia ezarrita zegoen portu horretan; horixe da Kantauri isurialde osoan ezagutzen den kolonia erromatar bakarra. Datuen arabera, 74. urtean sortu zuten eta bere izena Tito Flavio Vespasiano enperadorearen omenezkoa da. Izenaren *-briga* amaierak jatorri zeltiberiarra ei du.

Aurrekari horiekin, baiezta dezakegu I. eta IV. mendeen artean antzinako Nerva itsasadarrak (gaur Ibaizabal) erromatarren itsasontzien joan-etorri ugari hartu zuela, Hispaniako iparraldetik Galiara merkantziak eramateko.

Testuinguru hori kontuan hartuta, pentsa dezakegu Kortiñeko aztarnategia familia baten ekonomia sustatzeko burdinola txiki bat zela, edo Ibaizabalen eskuinaldean bizi zen herritar-talde batek erabiltzen zuen burdinola bat zela.

Esan bezala, Kortiñen egindako zundaketetan eta indusketan aurkitutako *terra sigillata* zeramika-zati denak Bilboko Arkeologi Museoan daude gaur egun. Horiek aztertu ondoren, eta aurretik aipatutako testuinguru eta aurrekari denak kontuan hartuta, ondorioztatu dugu Kortiñeko aztarnategia II. eta IV. mendeen artean koka daitekeela kronologikoki. ◂

Kolorearen eta argiaren irletan galduta

Norvegiako iparraldera hurbilduko zaituztegu oraingoan, konfinamendutik apur bat aldentzeko eta hango paisaiak eta bizimodua ezagutarazteko. Zirkulu polar artikoaren barruan dauden irletan ibili ginen bost egunez, eta bikingoen fiordoetan ikusitakoa dakargu irudiotan. Aratz Gago gidari, Tromsøtik abiatu eta Lofoten irlen azken muturreraino joan ginen, aurora borealaren bila, hotza, elurra eta natura bidelagun.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▸

Kontrasteen lurraldean neguak gogorrak dira, batez ere argitasun-ordu gutxi batzuk dauden hilabeteetan.

Paisaia eder, natura basati eta mila kontrasteko lurraldea da Norvegia. Urtean zehar, egunak dituen argi-orduen kopurua oso aldakorra da. Udako egunetan eguzkia ez da sartzen, eta 24 orduz dago argitasuna; «gauerdiko eguzkia» sasoi horretan gertatzen da. Neguan aldiz, egun batzuetan, argirik gabe egoten dira, eguzkia ez delako irteten. Kokapen geografikoak egiten du hain berezi Norvegia iparraldea. Tenperatura «epelak» egoten dira, 0 graduko batez bestekoa neguan, Golkoko itsaslasterragatik. Jende gehiena herri txikietan bizi da, naturan murgilduta, nahiz eta Tromsø eta beste hiri txiki batzuk egon. Erosketak egiteko, herri gehienetan supermerkatu edo *ultramarino* denda bat dago. Eskuman ikus dezakezue Aratz, etxeko sua pizten, sauna prestatzeko; normala baita sauna eta zoru azpiko berogailua egotea etxe guztietan.

Zura oso oinarrizkoa da, bai historikoki, bai gaur egungo bizimoduan.

Eraikin gehienak, batez ere etxebizitzak, zurez egindakoak dira, klima gogorrari aurre egiteko. Irudi honetan ikusten duzuenez, itsasoaren gainean dauden etxeak zuzenean harrian finkatzen dituzte zurezko zutabeen bitartez, harria zulatuz eta iltze batzuekaz. Etxe askotan belarrez betetako teilatuak ikusi ahal dira, *Torvtak* izenekoak. Isolamendu oso ona ematen dute, eta ur-filtrazioetatik babesteko balio dute, modu ekologikoan. Haien mantentze-lanak egiteko, askotan, ardi bat igotzen dute, belarra moztu eta lurra ongarritzeko. Eskuman ikusten denez, errepide izoztuak direla eta, kotxeek elurretarako gurpilak dauzkate, iltzeakaz, eta argi indartsuak elurretan dagoenean bidea ondo ikusteko.

Neguan dator bakailaoa iparraldetik; arrantzale onak izateagatik ospea dute norvegiarrek.

Kostalde luzea duen lurraldea den neurrian, Norvegia herri arrantzalea izan da betidanik. Bakailaoa (*skrei* esaten diote) famatua da hemen, iparraldean batez ere. Neguko haizea eta klima oso aproposak dira sikatzeko, eta herri guztietan daude lehortegiak. Ontziak oso gogorrak dira, itsaso gogorrean irauteko. Izokin-haztegiak ere badaude; iaz arazo larria izan zuten alga toxiko batzuekaz, eta milioika izokin hil ziren.



Paisaia eta kolore magikoak topa ditzakegu, elurraren milaka zuri eta grisak, ur turkesak eta aurora borealaren berdea.

Naturaren maitaleek gozatu egingo dute lurralde hauetan murgiltzea. Hondartzetan amaitzen duten mendi altuak, animali basatiak ikusteko hamaika aukera, eta aurora borealaren bila ibiltzea gau hotzetan. Ez da erraz

a aurora ikustea, eta gauero ibili ginen haren bila, baina gutxien espero genuenean agertu zen, gaua berdez tindatuz.

Ane Otalora | Erresuma Batua

«Hemengo egoera eramangarriagoa izaten ari da»

Apirilaren 17an egindako elkarrizketa.

Ane Otalorak hiru urte daroatza Glasgowen (Eskozia, Erresuma Batua), taberna batean lanean. Bere sorterritik bi mila kilometrora egon arren, berton bezala ere konfinamendua zer den ezagutzen du algortarrak. Izan ere, koronabirusak ez ditu mugak ezagutzen eta, gurean etxealdia martxoaren 14an hasi zen arren, Erresuma Batuan martxoaren 23an ezarri zuten, «nahiz eta jende asko etxean geratzen hasi ginen astebete lehenago», Otalorak zehaztu duenez. Neurriok ez dira berdinak izan han eta hemen; hala, Glasgowen bizi duen egoera bertokoa baino «eramangarriagoa» dela aitortu du: «Egunean behin etxetik irteteko aukera dugu ariketa fisikoa egiteko. Hala ere, ezin gara etxekoa ez den inorekin geratu; kaleak poliziaz beteta daude hori kontrolatzeko». Pertsonen artean utzi beharreko distantzia metro bikoa da bertan ere eta edukiera mugatu dute supermerkatuetan. Otalorak aitortu duenez, lehenengo aste «gogorra» igaro ondoren, «nahiko ondo» darama etxealdia. «Gutxienez bi hilabetez horrela bizi behar dugula barneratu dut eta, harez geroztik, errazagoa egiten ari zait dena». Larrialdiak tabernak itxi behar izatea eragin du (etxetik eroateko zerbitzua eskaintzen dutenak izan ezik); hala, behin-behinean lan egiteari utzi behar izan dio, kobratzen jarraitu arren. ◂

Arrate Sainz de la Maza | Danimarka

«Gobernu daniarrak emandako datuak ez dira guztiz errealak»

Apirilaren 20an egindako elkarrizketa.

Urte biko master bat egitera joan zen Arrate Sainz de la Maza Larrea Kopenhagera orain dela lau urte; hori amaitu ondoren, Kopenhageko ikerketa-talde batean hasi zen beharrean, doktoretza atera bidean. Dioenez, koronabirusak eragindako krisialdiak etxetik lan egitera behartu du eta, laborategian egon ezin den bitartean, zientzia-artikulu bat idazten ari da. Izan ere, martxoaren erditik hona sektore publikoko langileak eta ikasleak etxetik lan egiten ari dira. Aitortu duenez, ondo moldatu da egoera berrira eta ez du aspertzeko astirik. Kalera irten ahal izateak, gainera, asko laguntzen duela azpimarratu du: «Egunero jende asko ez dabilen lekuetatik paseo bat ematera edo korrika egitera joaten saiatzen naiz. Lehen nuen errutina eta leku askotara joan ahal izatea da faltan botatzen dudana, baina Euskal Herriko eta beste hainbat herrialdeetako egoera ikusita, pribilegiatuak gara. Familiak kezkatzen nau gehiago». Danimarkako Gobernuak hartutako neurrien «gardentasun-falta» deitoratu du Sainz de la Mazak: «Biztanleei emandako datuek eta informazioak ez dute errealitatea islatzen». Gainera, pertsonak eta horien osasuna lehen lerroan jarri beharrean agintariek ekonomiari eman dioten garrantzia ere salatu du: «Krisi honetan beharrezkoa den laguntza soziala gizartearen eskuetan utzi dute». ◂

Olatz Garaizar | Japonia

«Teknologiari esker hurbil senti dezakegu familia»

Apirilaren 22an egindako elkarrizketa.

Lan egin eta bidaiatzeko aukera ematen duen *Working Holiday* Bisa baliatuta joan zen Olatz Garaizar Gomez Tokiora duela urtebete baino gehiago, bere mutil-lagunagaz. Bisa amaitu zitzaienean hainbat hilabete gehiagoz bertan geratzea erabaki zuten, turista modura, maiatzaren 25era arte. Orain, baina, koronabirusa dela eta, Japoniatik mugi ezinik dabiltza eta hegaldi denak bertan behera utzi dituzte, kontua lasaitu bitartean. Garaizarrek azaldu digunez, konfinamendurik ez dago dekretatuta bertan, baina bai larrialdi-egoera joan den apirilaren 6an Yuriko Koike Tokioko gobernadoreak hura ezarri zuenetik; hamar egun beranduago, Shinzō Abe Japoniako presidenteak krisialdia herrialde osora zabaldu zuen. Dena dela, aurtengo Joko Olinpikoak bertan behera uztea erabaki zutenean inflexio-puntu batean sartu zirela dio Garaizarrek, «egoera larritu egin da». Ordutik, COVID-19 kasuak ugarituz joan dira pixkanaka; ondorioa: «Hiritarroi etxean gera gaitezen eskatu zigun mesedez Tokioko gobernadoreak; astez aste neurriak gogortu egiten ari dira». Lanari dagokionez, kaleratze asko egon dira azkenaldian Japonian: «Gehienak atzerritarrak edo hasiberriak ziren». Ekonomia hobetzeko neurriak ere hartzen dabil Gobernua, hala nola «familia bakoitzeko 1.000 euro ematea egoera hobetzen saiatzeko». ◂

Mikel Montes | Alemania

«Desiratzen nago lanera bueltatu ahal izatea»

Apirilaren 23an egindako elkarrizketa.

Koronabirusa dela eta, itxi zituzten lehenengo gauzak eskolak izan ziren Alemanian, martxoaren 12an, hain zuzen ere. Egun bi geroago tabernak sartu zirenmultzo horretan, jatetxeak zabalik mantendu zituzten arren; hala ere, astebete beranduago etxera eroateko zerbitzua dutenek bakarrik zabalduta mantendu dituzte. Ondorioz, lan barik dabil egunotan Mikel Montes sukaldari algortarra, duela bost urte eta erdi Berlinera joan ondoren. Lan egin ezinik, egunerokoa «ahalik eta hobekien» igarotzen saiatzen da Montes. Alemanian ez dira konfinatuta egon eta kalera irteteko askatasun osoa izan dute hasieratik. Hala ere, bidaiatzea, tabernetara joatea eta kontzertuez gozatu ahal izatea faltan ditu sukaldariak, baita familia eta lagunak ere. Krisia hasi aurretik egin zitzakeen gauzak egitearen mina du algortarrak: «Inoiz ez nukeen pentsatuko lan egitea faltan botako nuenik, baina desiratzen nago bueltatzea». Joan den martxoaren 13an egin zuen behar azkeneko aldiz; ordutik *kurzarbeit* batera aldatu dute bere kontratua, egoera amaitu bitartean. «Horrek esan nahi du enpresan segitzen dugula eta Estatuak ordainduko dizkigula soldataren bi herenak». Neurri horregaz, langileen kaleratzeak saihestu gura izan ditu Gobernuak, «baita langabezia-tasa igotzea ere». ◂

Aida Riaño | Mexiko

«Goseak beldur handiagoa eragiten du birusak baino»

Apirilaren 27an egindako elkarrizketa.

Duela urte eta erdi joan zen Aida Riaño Barrio Chiapasera (Mexiko); bertan, komunitate indigenakaz harremanetan dagoen Yomol A´tel enpresan egiten du lan. Lau aste igaro dira etxetik beharrean hasi zenetik; hala ere, joan den astean lantaldeagaz bildu behar izan uen aurrez aurre, datozen hilabeteetarako lana antolatu ahal izateko. Ordutik, azaldu duenez, erosketak egiteko bakarrik irteten da kalera. Aitortu digunez, ezin du Mexikoko egoera orokorraz berba egin, alde batetik bestera bizi den egoera ezberdina delako. Bera landa eremuan dagoen herri batean bizi da, indigenakaz, hirietatik nahiko baztertuta. Azaldu duenez, COVID-19aren presentzia herrigune handietan ematen da gehien; hala, bere inguruan oraindino kasurik aurkitu ez dela nabarmendu du. Dena dela, uste du laster komunitate indigenetara ere hedatuko dela gaitza, «bertoko gazte asko leku turistikoetara joaten baitira lanera eta orain bueltan etorri behar dutelako, lan gabe ezin direlako bizi». Orokorrean kalean jende gutxi ikusten dela azpimarratu du Riañok, «baina beste batzuek bizimodu normala dute, ez dute sinisten hau arazo bat denik». Izan ere, nabarmendu duenaren arabera, inguru horretan arazorik handiena ekonomia da: «Jende askok egunekoa irabazteko egiten du lan eta goseak birusak baino gehiago beldurtzen ditu».

Aratz Gago | Norvegia

«Elkarri laguntzen diogu denok hemen, ezagunak gara»

Apirilaren 28an egindako elkarrizketa.

Aratz Gago Norvegiara joan zen joan den abenduan; ordutik, Troms probintziako Mortenhalsen herrian bizi da, Balsfjord fiordoaren barrutian. Azaldu digunez, gaur egun ez dago konfinamendurik Eskandinaviako lurralde horretan; hala ere, koronabirusaren pandemiak Gobernua neurri batzuk hartzera behartu du. Herri txiki batean bizi da Gago, giro lasai baten erdi-erdian. Supermerkatu bakarra dago bertan, inguruko lau udalerrietako biztanleak hornitzen dituena: «Batzuetan ez dut ezta bezeroekin topo egiten ere». Hiri handi gertuena ordubetera dago, kotxez. Hala, getxoztarrak dio sozialki ez duela aldaketa handirik nabaritu COVID-19a bertara heldu zenetik; lan egiten duen hotela ixteaz aparte. Egoerak traba handia egin dio getxoztarrari, hotel horretan hasiberria baitzen: «Otsailean hasi nintzen lanean; hamasei egunez bakarrik egin dut lan eta nire kontratua proba-denboran egon zenez, ez daukat eskubide askorik hemen». Ondorioz, kontratu barik, egoerari so dago, hotela zabaltzeko unearen zain: «Nagusiak esan dit giltzak gordetzeko, hotela irekitzean beharrezkoa izango naizelako». Bitartean, lagun baten etxera lekualdatu da bizitzera, dirua aurrezteko. Ordainetan, etxeko beharretan laguntzen hasi zaio; inguruko auzokideei ere laguntzen die.

Beñat Azkargorta | AEB

«Ekonomian jarri da fokua, ez jendearen beharrizanetan»

Maiatzaren 4an egindako elkarrizketa.

AEBetako Chicago hirian harrapatu du COVID-19aren pandemiak Beñat Azkargorta. Duela hiru urte joan zen bertara master bat ikastera; ordutik han segitu du, lanean. Dioenez, Chicagon segurtasun-neurriekiko kontzientziazio handia dago eta martxoaren 13an itxi zuten bulegoa; harrezkeroztik etxetik dabil lanean. Koronabirusak AEBetan eragindako egoera gogorra egiten ari zaiola aitortu du Azkargortak, «gogo-aldartean batez ere». Izan ere, bakarrik bizi denez gero, lagunakaz egotearen eta kirola egitearen falta handia sumatzen du. Hala ere, argi du zorte handikoa dela, lana eta soldata mantendu dizkiotelako. Azaldu duenez, jende asko kaleratu dute herrialde horretan krisiaren ondorioz; «arriskurik gabe etxetik lan egin ahal izatea sekulako pribilegioa da gaur egun». Etxegabeen kopurua ere handia dela deitoratu du. AEBak dira munduko herrialderik kaltetuena, bai kutsatuen aldetik zein hildakoen aldetik ere. Krisia iparraldeko hiri handietan nabarmendu da gehien, hala nola New York, Boston eta Chicagon bertan. Krisialdiari aurre egiteko Gobernuaren erantzuna «oso berantiarra eta kaskarra» izan dela salatu du Azkargortak, are gehiago «fokua ekonomian jarri zutelako, eta ez jendearen beharrizanetan». ◂

Rocio Gandarias | Zeelanda Berria

«Jendea pozik dago Gobernuak egindako kudeaketarekin»

Maiatzaren 6an egindako elkarrizketa.

Duela urte eta erdi joan zen Rocio Gandarias Zeelanda Berriko Auckland hirira lanera. Martxoaren 25ean laugarren alerta-maila ezarri zuten Zeelanda Berrian, ekitaldi denak bertan behera utzi eta beharrezkoak ez diren negozioak itxi zituzten. Telelana sustatu zuten, baita konfinamendua ere, «dena dela kalera atera gintezkeen bizikideekin, paseatzera edo kirola egitera zein erosketak egitera». Bere enpresak ere neurriak hartu zituen alerta maila horretan koronabirusari aurre egiteko; «langile denon soldataren %80 ordaindu zuen etxetik lan egiteagatik. Lantegian lan egiten zutenek ezin izan zuten lan egin, baina, hala ere, soldataren %80 jaso zuten». Apirilaren 27tik, aldiz, alerta hirugarren mailara murriztu da; ondorioz, jatetxeek eta tabernek etxera eroateko zerbitzua zabaldu dute, langileak lantegietara bueltatu dira eta bizikideak ez diren beste pertsonakaz elkartzeko aukera daukate herritarrek, «gainera, surfa, igeriketa eta lehen debekatuta zeuden beste banakako kirol batzuk praktika ditzakegu orain». Bera amatasun-bajan dago, baina bere bikotekideak etxetik lan egiteko aukera eduki izana baliagarria izan zaiela aitortzen du Gandariasek, «pozik gaude nire bikotekideak eta biok egun osoa seme jaioberriarekin pasa ahal izan dugulako». ◂

«Musikaren munduan dabilen jende asko ez da musikaz bizi»

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO** ▶

Gaur egun kaletik hurbilen dagoen gunea bilakatu den balkoian botata nagoela, kafea eskuan eta Nebula Selektah taldearen azkenengo *pintxada* entzuten, gure herriko musikari gazteak bizitzen ari diren egoera zerzelakoa izan daitekeen pentsatzen hasia naiz. Etxean egindako zaratagatik hilko ote zituzten auzokideek? Depresioak jota Joy Divisionen bertsioak jotzen ibiliko dira orain? Ala, beharbada, *Rock Star* baten antzera, alkoholaren eta drogen munduan bete-betean murgilduta egongo dira? Nork daki... Hobe izango da eurek kontatzea zelan eragin dien COVID-19aren pandemiak beren egunerokotasunean.

Larrialdi Egoeraren erdi-erdian greba kulturala bizi izan dugu. Zer iritzi diozue horri? ELENA NUÑEZ: Oso ondo iruditzen zait greba egitea, derrigorrezkoa zen egoera zein den ikusita. Baina, egia esan behar badut, ez dut asko nabaritu. Agian nire ingurukoek ez dutelako grebarik egin edo...
JOKIN SAN JOSE: Sistema ona da ikusarazteko jendeari kulturarik gabe askoz ere zailagoa dela bizitzan aurrera egitea.
XABIER SARASKETA: Sortzaileen mundua ekonomikoki gogorra izan ohi da, jendeak ez baitio daukan balioa ematen sortze-lanari. Askotan, gainera, kultura doakoa delako ideia izaten dute askok.
ANE RODRIGUEZ: Ez dezagun ahaztu kultura ez dela bakarrik zerbait sortu eta ekoizten dutenena; jasotzen eta kontsumitzen dutenena ere bada. Guztiona da. Horregatik, gizarte osoaren erantzukizuna da kultura babesteko aldarrikapenetan parte hartzea.

«Egoera honetan entseatzeko arazoak daude eta produktiboagoa da gauza berriekin hastea»
ELENA NUÑEZ
SERPIENTE TALDEKO BATERIA-JOLEA

«Jendeari ikusarazi behar zaio kulturarik gabe askoz ere zailagoa dela bizitzan aurrera egitea»
JOKIN SAN JOSE
TRIKITILARIA

Azkenaldian asko entzuten ari gara musikaren munduan dabilen jendearentzat sormenerako une ona dela hau. Horrela dela uste duzue? MARIA ARRIAGA: Uste dut sormena ezin dela halamoduz probokatu. Datorrenean dator, eta bestela... itxaron behar. Egia da orain inspirazioa datorrenean etxean gaudela gure gailu eta baliabide guztiekin, datorrena harrapatzeko, eta denbora nahikoa dugula datorrenari forma emateko.
X.S.: Sortzeko, nire ustez, bi gauza beharrezkoak dira: denbora eta estimuluak. Denbora soberan daukagu, baina estimuluak urriak dira... Beraz, batzuk ondo konponduko dira, baina beste asko ez. Ez dakit egoera honek momentu egokiak dituen; zalantza gehiegi eduki ditzakegu.
A.R.: Esango nuke baietz, baina, hala ere, ez da ahaztu behar musika-munduan dabilen jende asko ez dela musikatik bizi; jarduera musikal hori beste gauza batekin osatu egin behar dute diru-sarrera nahikoak izateko. Ez dezagun pentsatu musikariek eguneko 24 orduak dituztela eskuragarri sormenerako.
E.N.: Momentu hoberena da! Entseatzeko arazo handiak daude eta produktiboagoa da guretzat gauza berriekin hastea.
J.S.: Niretzat beti da momentu ona musika edo beste motatako artea sortzeko. Edozein egoerak lagundu ahal digu sormenerako. Beti ere kontuan izanda musikak gu erabiltzen gaituela instrumentu modura, eta ez alderantziz. Nire kasuan, konposatzen egon naiz egunotan, bai.

Konfinamendua hasi zenetik hainbat artistak sare sozialak baliatu dituzte euren sorkuntzak gizarteratzeko. Zer uste duzue horren inguruan? E.L.: Nire ustez tresna ona da norberaren musika-taldea ikusarazteko. Gainera, besterik egiteko ez dagoen momentu hauetan, gauza originala iruditzen zait. Eta

bestalde, esan beharra daukat gu, berez, ez garela sare sozialen oso zaleak...

J.S.: Oso metodo ona iruditzen zait edonolako artea ezagutarazteko; sare sozialak ez dira selfiak partekatzeko bakarrik. Konfinamendu honetan, bai erabili izan ditut tresna horiek, Instagram batez ere. Nire piezak jotzen agertzen naizen bideoak argitaratu ditut; era berean, nahi duenarentzat eskolak dohainik emateko baliatu dut. Hala ere, betidanik egin dut hori.

A.R.: Nahiz eta sare sozialak erabilgarriak izan, egoera honetan bereziki, uste dut kulturaz gozatzeko modurik onena, eta nire iritziz ordezkaezina, zuzeneko emanaldia dela.

Musikariontzat egoera berezia da hau; taldean jotzen duzuenok zelan moldatzen zarete zuen proiektuekin jarraitzeko? E.L.: Gauza berriak sortzeko momentua heldu dela erabaki dugu. Konfinamendu honek eman digun aukera hartu dugu eta, nork daki, hau dana amaitzean baliteke disko berria ateratzea.

X.S.: Urrats, erromeria talde odura, geldirik dago orain, ez baitugu sorkuntza-lanik egiten. Zuzenekoetan oinarritzen dugu gure jarduna eta, entseguak egitea ezinezkoa zaigunez, pazientzia edukitzea dagokigu. Nire kasuan, buruan nituen ideiak garatzeko baliatzen ari naiz, baita musika-grabaketa eta produkzioan apur bat ikertzeko ere.

A.R.: Nik Musikalia bandan jotzen dut eta, ostiralero guztiok batera entseatzeko ez elkartu arren, proiektuak aurrera jarraitzen du, bakoitzak bere kabuz lan egin dezake eta. Horrez gainera, bandak abesti bat prestatuko du, bakoitzak bere burua etxean grabatuta; ondoren bideo denak *collage* batean elkartuko ditugu.

M.A.: Zaila den arren, badira egin daitezkeen gauzak. Batek ideia bat bota eta besteok garatu edo gure soinu-tresna sartzen dugu; bertsioak egin, bakoitzaren soinu-tresnari egurra eman... Eta bada gitarra jotzen ikasten hasi denik ere!

«Sortzeko bi gauza dira beharrezkoak: denbora eta estimuluak. Denbora soberan dugu, baina estimuluak...»
XABIER SARASKETA
URRATS ERROMERIAKO BAXU-JOLEA

«Sare sozialak erabilgarriak diren arren, zuzeneko emanaldiak ordezkaezinak dira kulturaz gozatzeko»
ANE RODRIGUEZ
MUSIKALIAKO OBOE-JOLEA

«Apirilean disko berriaren aurkezpen-bira egitekoak ginen; azkenean Internet bidez kaleratu dugu»
MARIA ARRIAGA
LABANA TALDEKO BATERIA- ETA GITARRA-JOLEA

Azken asteotan jakin dugunez, Labana taldearen lan berria kalera atera duzue. Egoera honek aurretik zenuten diskaren aurkezpenean eragina izan du? M.A.: Bai, azken batean, apirilean hasi behar genuen bira, eta egoera honekin ezinezkoa izan da. Gure lana kaleratzeko eta jendeak entzuteko zailtasunak izango genituela ikusita, lana kaleratzeko Interneta erabiltzea erabaki genuen. Horrela, *Blacklist* publikatu genuen duela gutxi. Zorigaitzez bizirik jarraitzeko dugun ia modu bakarra izango da hau.

Urrats erromeriaren kasuan, udaberria eta uda dira garairik oparoenak. Zelan ikusten duzu egoera? X.S.: Aurtengo denboraldirako ez dugu esperantza handirik egia esan. Esan bezala, gure lana zuzenekoetara zuzendua dago eta ez dirudi aukera askorik edukiko dugunik horretarako. Hala ere, alaitasunez hartu beharko dugu. Azken batean lan handia ematen diguten arren, oso gustora egiten ditugu udako kontzertuak, eta pena handia ematen digu aurtengo emanaldi asko bertan behera utzi behar izateak.

Zelan deskribatuko zenukete egoera, berba gutxian? E.N.: Sorkuntzaren momentu bikaina.
X.S.: Ziurgabetasuna eta hutsunea.
M.A.: Pertsonak sentitzeko beharra.
J.S.: Kristolako lasaitasun nazkagarria.
A.R.: Ziurgabetasun garaian, musika lagungarria da. ◂

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

Arrain-saltzaileak

Arrandegi bi hauetako saltzaile bakoitzak badu besteak ez daukan zerbait erakusmahaian. Zeintzuk dira elementu bi horiek?

Marraztu

Ui! Erlea ihesi doa! Zerk beldurtu ote du? Txori baten moko zabalak? Tximistak? Armiarmak? Spray pozoitsuak? Marraztu ezazu.

Kaleko dantzariak

Aurki itzazu irudi bien artean dauden aldeak. Hamabi dira guztira.

Labirintoa

Lagundu erleari erlauntzara onik heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuma, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak berben arteko tarteak dira.

Sekuentzia



Idatzi hemen esaldia.

Bota dadoa!

Sei dado hauetatik lau besterik ez datoz bat irudi zabalduagaz. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Itzala

Zein da lore maitemindu bi hauen itzal zuzena?



Sudokuak

Goiko LORE BIek sudoku baterako aitzakia eman digute. Osa itzazu lauki zuriak berba bi horiek osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (L, O, R, E, B eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzean.



Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzean.



Inoiz baino gehiago, herrian kontsumitzeko ordua da

Garai zailak datoz denontzat; COVID-19aren pandemiak alor denak kolpatu ditu, batzuk besteak baino gehiago. Zuok, gure iragarleok, sostengua izan zarete guretzat urteotan bizi izan ditugun une zailetan. Orain, zuoi dagokizue aurrera egitea; denon artean lortuko dugulakoan, kontsumitu herrian! Apurka-apurka denda eta komertzio batzuek daborduko ateak zabaldu dituzte. Hala ere, kontuan eduki konfinamenduaren arintze-prozesuaren arabera ordutegi eta babes-neurri batzuk bete beharko dituztela; ondo kontsultatu komertzio bakoitzaren ordutegia eta arretarako modua. Izan ere, bizi dugun egoeraren arabera merkatarien lan egiteko modua aldatuz joango da.

MODA

OSTALARITZA

OPTIKAK

Taberna Berri
Sarrikobaso 4. ALGORTA · 94 430 64 93

saiazgetaria HOTELA
Roke Deuna kalea, 25 · GETARIA
T. 943. 140. 143
www.saiazgetaria.com

Kafetegia
GOXO BREAK
Ogiderda
Getaria, Mª A-Lona, Larrabasterra

TXOZNA JATETXEA
Torre Barri bidea, 3
Urduliz
94 676 34 71
645 77 68 23

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA
Aita Gotzon 4, Urduliz
94 676 07 15

xixili café
Fundación Jado, 10 - Erandio
94 467 43 71 - xixilierandio@yahoo.es
Xixili kafe tabernan denak dauka historia eta argibidea!

Loraketa
LORE-ARTEA
Elexalde, 15 - URDULIZ
685 730 495

JANARI-DENDAK

Zurikaldai
NEGURI

BASERRIKO
denda
699 81 12 89
Baserriko sasoiko produktuak
Productos de caserío de temporada
Produktu ekologikoak
Productos ecológicos
Goi-mailako produktuak
Productos selectos y gourmet
Valentziako zitrikoak
Cítricos valencianos
Sasoiko fruta ekologikoak
Frutas de temporada ecológicas
Opari egiteko etxeari egokitutak
Cestas de regalo personalizadas
Produktuak Km0
Productos Km0
Serbizio kolektiboetara, tiendetara eta kontsumo taldeetara zuzenean

JUAN MARI
Harategia
Urdaitegia
Las Mercedes, 31. AREETA
94 464 41 25
Etxez etxeko ZERBITZUA!

izarbide kipula
SUPERMERKATU EKOLOGIKOA
Sabino Arana 82, LEIOA
Saskoneta poilkiroldegi aurrean
Etxez etxeko bidalketak: Uribe Kosta osoan!
661 07 68 44

ILEAPAINDEGIAK

PELUQUERIA
Itziar Olabarria ile-apaindegia
Maiatzaren 11-tik aurrera zabalik!
(Aldez aurreko hitzordua hartu beharko da)
Amezti, 7. Algorta (Getxo)
944 910 380

MARSUN
ILE-APAINDEGIA ETA ESTETIKA
ALANGOETA 6, ALGORTA
TEL. 944 608 222

LOREDENDAK

MC
peluquería
ileapaindegia
Norbeitzaldeak!
Garbiketa eta aurpegi tratamenduak
Depilazioak: hotza, beroa eta laserrez
946 774 147 • Erribera 23 • PLENTZIA

GREMIOAK

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak
Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

4BIDE
PINTURAK
Etxez etxeko bidalketak!
Loroño kalea 2, Sopela
685 73 21 04

arai arkitektura
araiarkitektura
Aitziber Olarte Bidaurrazaga
www.araiarkitektura.com
94 677 34 36 | 615 762 044 | 652 747 584
Hormazalanda 3, 2 lokala. Gorliz

estudio.k
hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila
Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA
www.estudiok.es @Estudio__k
ner group

KLINIKAK

Oinutsik
Podologia kontsulta
94 484 74 20
Zabigane 4, SOPELA
podologiaoinutsik@gmail.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia
Ane Naforrate Martin
Doctor Ianda 9, Sopela
Telf.: 946008779

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA
944 307 696

AISIA ETA HEZKUNTZA

TRIKIMAILU
Kresaltxu 14, Romo
Aldez aurreko hitzordua hartzeko:
688 75 85 77/946 03 83 74
trikimailu.jolasak@gmail.com

SOINU
musika eskola
Eusko Jaurlaritzak daimendua
• Algortan 1968tik •

G.B.
Gorliz Biker
Tel. 946 774 859
www.gorlizbiker.com
info@gorlizbiker.com
DENDA ETA KONPONKETA-LANTEGIA • MARKA GUZTIAK
Pol. Sagostikoetxe Artzeta, 15 - GORLIZ

FOTOKOPIAK

impresio digitala
KOPILEIOA
Leioa
sabino arana 82 - 48940 leioa
tel 944649176 - fax 944014431
monkopileioa@ gmail.com
Inprimatze Digitala
Formatu Guztietan
Z/b eta Koloretan

GASOLINDEGIAK

GetxoGaso
GetxoGason
Euskararekin
bat!!
Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

AUTO-TAILERRAK

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIAK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika
Kotxea desinfektatzeko ozono makina daukagu!
Egoera aldatu arteko oedutegia: 8:00-14:00
Sopelan
Getxarine zig
94 676 00 13
94 676 38 14
Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74
BOSCH Service
Car Service

ESTANKOAK

URONDO
TABAKO DENDA
Sabino Arana 67, Leioa. 944 64 92 33

Flashback **Egin Eguna Altsasun, 80ko hamarkada**

UNAI BREA ▶

Gazteenek beharbada ez, baina gainerakook gogoratuko duzue *Egin* egunkariak Altsasu eta Urdiain inguruan, San Pedroko belardietan, antolatzen zuen Egin Egunaz. Lehenengoa 1982an egin zuten, eta azkena 1996an, egunkaria Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz itxi baino urte bi lehenago.

Hara joaten ziren milaka lagun, eta tartean eskualdekoak ere bai, noski. Lerro hauen aldamenean ikus dezakezuen taldetxoan, esaterako, erandioztarrak dira ia denak. Zoritxarrez, ezin izan digute zehatz adierazi zein urtetan egindakoa den argazkia. Batzuen abizenak ere ez dugu jakiterik izan. ◀

ARGAZKIAN:
Goian, zutunik: Josean ?, Lur Cerrato, Josu Navajas, Josu Cerrato [†], Justo de la Cueva, Modesto ?, *Mitxi* ?
Erdian, makurtuta: Margarita Ayestaran
Behean, ezkerretik eskumara: ?, Eider ?, Ana ?

LUR CERRATOK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora

TESTUA
Naroa Torralba Rodriguez

DOINUA
Mutil koxkor bat itsuaurreko

ARGAZKIA
Hodei Torres

Pegaso

Zeusen zaldi hegalaria
ezaguna da deitura
lirain-liraina hara eta hona
biziz mila abentura.
Onenek ere jasaten dute
denboraren ahanztura.
Nabaria da zaldi honetan
bekokiaren belztura:
konpainia bakar du euli taldeak
egiten dion azkura.

Gai tabua da sor diezaioke
samindu askori protesta.
Lehena, onena den garaietan
sobran laudorio zein festa.
Baina, bolada txar bat igaro
(e)ta erdia doa iheska
zaldia izan, pertsona izan
berdina da, berez, kezka:
artistak soilik omentzen dira
hiltzen direnean, ezta?

Zer eragin dute ingurukoek
norbait bakarrik uztean
norbanakoak errua jartzen du
talde osoaren ustean.
Gogoratu naiz Berri Txarrak-en
letra batzuk abestean,
polita dela bakardadea
hautatuz modu askean
zaldi zauritu baten antza du
maitasunaren eskean.

ALBE Algorfako Bertsolari Eskola

Goi-mailako profesional kualifikatuek osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea .

Kendu zure barizeak zain barneko laserraren bidez eta hobetu zure bizi-kalitatea

Atseden hartzea eragozten dizun mina eta koskor antiestetikoak kentzeko unea da dagoeneko. Dermiteken 2010. urtetik erabiltzen dugu zain barneko laserra: zauririk gabeko teknika da, oso eraginkorra; ez du albo-ondoriorik eta barizeak berriro agertzeko tasa txiki-txikia da.

ZURE OSASUNEAN ETA IRUDIAN ERAGINA DUTEN SINTOMAK. Azkurak, erremina, sumina, zango-astuntasuna eta arranpak dira, besteak beste, barize lodien sintomarik ohikoenak. Halere, zure osasunari erasaten dioten beste konplikazio batzuk ager daitezke, esaterako, bena-gutxiegitasuna duten pazienteei gerta dakizkiekeenak. Arazo estetikoak badu eragina: gogoko dituzun jantziak hanketako koskor edo barizeetan pentsatu gabe eramatea gustatuko litzaizuke, esate baterako.

Hortaz, zalantza hau izango duzu: ebakuntza-gelatik igarotzea da konponbide bakarra? Litekeena da ohiko kirurgia probatu eta denboraldi baten ondoren barizeak berriro agertu izana. Beraz, puntuak, anestesia orokorra eta susperraldi luzea berriro jasateaz pentsatze hutsaz, berriz saiatzeko asmoa baztertu duzu.

Zorionez, badaude beste teknika azkarrago eta eraginkorrago batzuk, eta horien eskutik barizeak oso gutxitan agertzen dira berriro.

ZAIN BARNEKO LASERRA: NAZIOARTEAN GOMENDATZEN DEN LEHEN AUKERA. Zain barneko laserra tratamendu segurua, zehatza, azkarra eta eraginkorra da, tratatu beharreko barizean zuzenean jarduten duelako; hots, zangoaren gainerako aldeei eta hurbileko ehunei erasan gabe.

Ahaztu ebakiak, puntuak edo ebakuntzaondoko minak. Berehala ekingo diozu berriro zure ohiko jarduerari, ez duzu laneko bajako egun bat ere ez eskatu beharko, oinez irtengo baitzara kontsultatik.

Horregatik, gaur egun, osasun baskularreko nazioarteko erakunde nagusiek tratamendu hori gomendatzen dute barize lodiak tratatzeko lehen aukera gisa, eta gaixotasun hori zuten milaka pazienteren bizimodua aldatu du.

> **Gaur arte Dermiteken tratatu diren 2.000tik gora kasuetatik, %99,6k behin betiko emaitzak lortu dituzte**

Bilboko Dermitek klinikan 2010. urtetik erabiltzen dugu teknika hori eta gaur arte tratatu ditugun 2.000tik gora kasuen %99,6k behin betiko emaitzak lortu dituzte, eta koskorrak guztiz desagertu dira.

Ohiko kirurgian errezidiba (barizeak berriro agertzea) %20 ingurukoa da, eta aparrez tratatu direnena, %40 ingurukoa; gure esperientziaren arabera, zain barneko laserraren bidez tratatu direnena, berriz, %0,4koa baino ez. Oraindik uste duzu berriro saiatzea merezi ez duela?

HONELAKOA DA DERMITEKEKO ZAIN BARNEKO LASER BIDEZKO TRATAMENDUA. Doppler ekografia bidez monitorizatzen egiten da tratamendua, saio osoan. Ekografoarekin konektatuta dagoen pantaila batean ikusi ahal izango duzu prozesua. Anestesia lokala jartzen da larruazalean, tratatuko den zainean zuntz bat sartu aurretik, oso orratz mehe baten bidez, minik senti ez dezazun.

Dermiteken erabili ohi diren laserrek beroaz ixten dute zaina. Ordubete baino irauten ez duen saioa amaitutakoan, konpresio-galtzerdi bat jarriko dizugu eta klinikatik oinez irtengo zara, ordu erdiz ibiltzera. Oinez aterako zara, laguntzarik gabe, eta berehala ekingo diozu berriro zure ohiko bizimoduari.

ZURE BIZI-KALITATEA HOBETZEA ETA ZURE BARIZEAK KENTZEA POSIBLE DA. Eskatu orain doako hitzordu medikua, konpromisorik gabe. Dermiteken dihardugunok zure barizeen egoera doppler ekografia bidez aztertzen dugu, hots, horien diagnostikoa egiten dugu, eta zure tratamendua nolakoa izango den azaldu. **P.S.E. 144/16**

Armiarma baskularrak kentzeko tratamendua

Dagoeneko, 1999. urteaz geroztik, Dermiteken 11.000 saio baino gehiago egin ditugu armiarma baskularrak kentzeko, hots, larruazalaren gainazalean agertzen diren zaintxo horiek. Bi laser-mota erabiltzen ditugu helburu hori betetzeko, eta horiek, gainera, esklerosi-aparrarekin bateratzen ditugu, emaitzarik onenak lortzearren.

Armiarma baskularrak kentzeko saioen iraupena 30-90 minutukoa izaten da, eta krema anestesikoz edo kanpo-hotzaz baliatzen gara, tratamendua jasotzeko unean ahalik eta min txikiena senti dadin.

DERMITEK

Uribitarte Pasealekua,11-12, 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonoa:
944 010 110

Astelehenetik barikura 8:30etik 20:00etara, eta zapatuetan 9:00etatik 15:00etara

EUSKARALDIA

Getxoko entitatea zara eta Euskaraldian parte hartu nahi duzu?

Animatu eta izan gaitezen Getxoprest!

ARIGUNEA

Informazio gehiagorako edota entitate moduan izena emateko sartu getxoztarrak.eus-en